

ANTONIO ZAVALA, S. I.

# Motza, Zulaika ta Ugalde bertsolariak



AUSPOA LIBURUTEGIA

**Motza, Zulaika ta Ugalde  
bertsolariak**

**AUSPOA LIBURUTEGIA**

**83**

---

### **COLECCION AUSPOA**

**Administración: Plaza de Santa María, 2 - Tolosa  
(Guipúzcoa-España) Tel. 661612**

**Dirección literaria: Rvdo. P. Antonio Zavala, S.J.  
Colegio de S. Ignacio. Ategorrieta.—San Sebastián**

**Ordaindu bearrak:**

**Urte betekoa: 280 pezeta    Atzerrian: 380 pezeta**

**Ongilleak: 500    "    Ale bakarra: 35    "**

**ANTONIO ZAVALA, S. I.**

**Motza, Zulaika ta Ugalde  
bertsolariak**

**AUSPOA LIBURUTEGIA**

**1969**

**D. L. S. S. 51/69**

**IZARRA - Peña y Goñi, 13  
San Sebastián - Enero 1969**

# ARKIBIDEA

ITZAURREA ... .. 9

## MOTZA BERTSOLARIA

(Juan Kruz Beloki Arnaburu) (1875-1940)

“Motza” — Juan Kruz Beloki Aranburu ...	13
Txirrita, Gaztelu ta Fermin Imaz ... ..	27
Iru lengusu-gaiak ... ..	29
Joxe Miel <i>Kristo</i> ... ..	32
“Xeberok kantatzen du...” ... ..	38
“Orri gustatzen zaió...” ... ..	39
Piztien bertsoak ... ..	41

## MANUEL ANDRES ETA

### LORENZO ZULAIKA BERTSOLARIAK

Manuel Andres Zulaika Aristondo ... ..	51
Bi pezetako multa ... ..	53
Lengo bertsolariak zein ziran ... ..	55
Lorenzo Zulaika Arrieta ... ..	57
Gizonak perian ... ..	59
(1949) Bertso Berriak Aduna'ko erriari Lo- renzo Zulaika'k jarriak ... ..	61
“Udaberriyan...” ... ..	66
Eriotzari ... ..	67
Emil Satopeck ... ..	68
Bertso Berriak lenbiziko klinikan operatu zu- tenian Zulaika'k jarriak ... ..	69

(1956) Gero beste lau aldiz operatu ondoren jarritako bertsoak ... ..	71
Aduna'ko erriari eta lagunari ... ..	74
Erretira txarra ... ..	77
Bertso Berriak ipurtatxari Lorenzo Zulaika'k jarriak ... ..	79
Adunatarrai ... ..	82
Olatza'ko barrikotiarri bertso berriak ... ..	83
Oitik jaikitxian egin biar dana ... ..	85
Banakako bertsoak ... ..	86

### GREGORIO TA JOSE MANUEL UGALDE BERTSOLARIAK

Gregorio Ugalde ... ..	93
(1927) Bertso Berriak Andoain'go misiola riyai jarriak ... ..	95
Jose Manuel Ugalde ... ..	101
Neri gertatua ... ..	103
Bertso Berriyak J. M. Ugalde'k jarriyak ...	106
Padua'ko San Antonioren bizitza ... ..	109
(1948) Bertso Berriyak ondarrabiarrai jarriyak	114
(1951) Bertso Berriak Orio'ko arraunlariai jarriak ... ..	119
(1953) Bertso Berriak Orio'ko arraunlariai jarriak ... ..	124
Bertso Berriyak gaztiai jarriyak ... ..	129
(1953) Bertso Berriyak 1953'ko ugaldeari Jarriyak ... ..	134

## ITZAURREA

*Liburu onetan bost bertsolari beren bertsorekin bildu ditugu: Lasarte'ko Motta, Elgoibar'ko Zulaika aita-semeak, eta Andoain'go Ugalde aita-semeak.*

*Zer esanik eztago, bakoitzak liburu banaosatzen etzuala, ta orretxengatik bilketa au egin degula.*

*Orain baño leen ere egiña degu ola-moduko gauza, Auspoa'ren zenbait liburutan.*

*Bildu al izan ditugun bertsoak ez-ezik, bertsolari bakoitzaren berri ere arkitukodu irakurleak.*

*Eztegu, beraz, itzaurre ontan, beste zer esanik, irakurleari, liburu au atsegingarri izan dezala opa izatea baizik.*



**MOTZA BERTSOLARIA**  
**(JUAN KRUZ BELOKI ARANBURU)**  
**(1875-1940)**

**(LASARTE'KO SASUETA-AUNDI'KO  
MIGEL ZUAZNABAR'EK IDATZIA)**

« M O T Z A »

JUAN KRUZ BELOKI ARANBURU

Lasarte'ko zaldi-joku edo *hipódromo* deitzen zaion ortan bertan, Artutxa izeneko baserri bat zan.

Ortxe jaio zan Juan Kruz Beloki bertsolaria (1). Ez-izenez Motza deitzen zitzaion. Guk beti Lasarte'kotzat ezagutzen degu, ta Motzak berak ere ala esan oi zuan, Lasarte'koa zala, bañan Donostia'ko Zubieta ballaran jaioa zan.

Gaur ez dago Artutxa baserririk; azken gerra ortan bota zuten abiazioa jartzeko.

Nik ondo ezagutzen nuan azken alde-ra, bera zartu ta ni gazte nitzala; orain ni zartu ta ura illa. Askotan berari segika ibillia naiz, ni ere bertso-zale nazu-

---

(1) Juan Kruz Beloki Aranburu, 1875'ngo Ilbeltzaren 27'an, goizeko amaiketan, jaio zan.

Gurasoak, Jose ta Josefa Antonia, biak usurbildarrak; aitaren aldeko aiton-amonak: Migel Joakin, usurbildarra, ta "María de Aguirre", Lasarte'koa; amaren aldekoak: Jose Inazio, Isasondo'koa, ta Maria Josefa Baraibar, Usurbil'koa. (Usurbil'ko 10'garren bataio-liburua, 84'garren orria).

-ta. Bañan aita zanaren kide xamarra ta lagun aundia zan, ta aren esanaz balia-tuko naiz.

\* \* \*

Bost anai ta arreba bat ziran; gaur danak illak. Esan bezela, Artutxa base-rrikoak, Zubieta'ko partean, bañan La-sarte'ko parean edo bertan.

Zarrena, Andres, pulsulariya; bigarrena, Luis, pulsulariya; irugarrena, orain aipatzen ari gerana, Juan Kruz, Motza, pulsulari, bertsolari, txistelari, ta bildur-lari ere bai, gero esango deten bezela; laugarrena, arreba, Maria; bostgarrena, Jose Mari; seigarrena Jose Domingo.

Au idazten ari naizelarik, gauza bat bururatu zait Azpeitia'ko Agerre etxeaz. Anai guziak indartsuak diralako, badakizute zer esaten dioten etxe orri ez-izenez: Iber-Duero. Bada, Artutxa'k ere izen ori merezi zuan garai artan.

Gure Motza ori, oso pulsulari ona zan, bere pixukoa izateko. Andres zarrena ere, pulsulari ona. Donostia'ko zezen-plazan Antonio Astiazaran eta Antonio Iruin'goarekin jokatua zan. Biai berdin eman omen zien. Juzgaduan ibilli omen ziran erabakia artzeko, ta *nulo* izan zan.

Bein batean, Alkain Urnieta'koak desapiota bota zuan, bere erarekorik baldin bazan, pulsuan jokatzeko. Ain justu, Motza zan bere erarekoa.

Gure aita zana ere Motzarekin batean joan omen zan Urnieta'ra, pulsu-apustu ori egiteko asmotan. Zaldundegi ostatu famatu ortan bildu ziran. Bereala ezagutu omen zuten, Alkaiñek etzeukala jokatzeko gogorik. Nunbait desapiota egin zuan iñor azalduko etzalakoan. Ta gure Motza ori azaldu. Orduan Alkaiñek atzera. Eta biak bertsolari.

Asi omen ziran eztabaidak, eta Alkain orrek onela galdetu omen zuan: ia zein illetan urteak betetzen zituan Motzak.

Ez dakit zein ill esan zuan, etzidaten esan-da. Dakitena da illa esan zuala, ta Alkaiñek orduan esan omen zuan:

—I ez aiz nere erarekoa; illabete zarragoa aiz. Nik desapiota egin niken nere erarekoari jokatzeko.

Orduan batari ta besteari galdezka asi omen zan gure Motza, nungoa zan Alkain ori. Esan zioten Berretsuetako zala.

Ta Motzak:

—Nungoa? Nungoa?

Berriz ere erantzun zioten:

—Berretsuetako.

Ta Motzak:

—Ez, ez! Berritsuetakoa! Berritsuetakoa!

Danak algara batean utzi omen zituan. Alkarri bertsoak ere bota omen zizkio ten, bañan ez det bat ere jakin izan.

\* \* \*

Gure Motza ori, oso iaioa zan bola-toki jartzen; konkurso edo dalako oietara ere deitua izaten zan bola-toki jartzera. Bolari oso ona gañera.

Txertubi deitzen zitzaion bolaria, onetzat zeukaten Igeldo edo Antigua alde ortan. Txertubi anaiak oso sonatuak ziran. Bañan Motza, eta bere anai Joxe Mari ere bai, aien malla-mallakoak ziran. Askotan jokutzen zuten alkarrekin. Or nunbait ibiltzen ziran, batean batek irabazi ta bestean besteak.

\* \* \*

Artutxa beren jaio-baserri ortan bertan, sagardoa saltzen zan, askotan ez bazan ere, aldika-aldika bai. Lanak pixka bat aurreratu, ta etxeko ganadu-gober-

nua eginda, zai egoten zan Motza ori, zertorren jendeari arrera egiteko.

Motza kanpotan ibillia zan. Txirrita bezelaxe, argiña zan. Oso langille amorratua ez bazan ere, oso lan egokia egiten zuan. Sagardoa saltzen jartzeko, Motzak etxe-ingurua apaintzen zuan, bola-toki, toka, exeri-alki ta abar jarriz.

Motza ta bere anaiarekin gertatua esango dizuet. *Guerra europea* zebillela zan.

Len esan dedan bezela, gure Motza sagardotegia prestatzen ari zan; ta bere anai Joxe Mari, berriz, idi-parearekin *hipódromo* ori egiten. Joxe Marik esan dio:

—I, Motza!

Ta onek:

—Zer biek?

—Badakik biyar sagardoa saltzen jarri bear degula, ta iñorkiñik batere etzeukagu; garo pixka bat ekarri biek.

Motzak lengo lanean segi. Etorri da igande-goiza; jendea sagardotegira. An dabil gure Motza guziekin. Ni ere bai berearekin batera, tortilla pixka bat jan da sagardoa edanez. Oso ona zuten. Sona aundiz saldu zan.

Anai Joxe Mari, berriz, asarre: beiak

kaketan da iñorkiñik ez. Eguardi aldera beiak atera ditu edanaztera. Joxe Marik deitzen dio bere amorruan:

—I, Motza: beiai azpiak egin izkek!

Motza atzetik korrika Joxe Marigana:

—I Joxe Mari, Joxe Mari: zein meta asiko dit?

Ez baitzegon izpirik. Arrengatik Joxe Marik esan zion, Motza lotsatuko ote zan. Bañan onek azkar galdetu ia zein meta asiko zuan!

\* \* \*

Aste artan bertan Oriako kuadrilla bat sagardotegian zan, illunabarrean etorrita. Motzak, bere lagun batzurekin, katu-jatea zuan.

Emen, orain ere bai, baña garai artan askotan izaten zan katu-jatea. Askok ez du nai izaten, bañan nik ere jan izan det, eta neretzat oso ona da. Jarri egin bear. Ezta antzeman ere erbia ala katua dan, zenbaitek jarri ezkeru.

Gure Motza ori an zegoan, bere katu-jatea eginda, egarri xamar, eta oriatar oiek ez ateratzen sagardorik.

Denbora artan, Ferrer katalana, langi-

llearen alde atera ta Gobernuak kartzelan sartua zan; ta batzuk ura zala gizona, ta beste batzuk ezetz, ta eztabaida izugarrian ari ziran.

Gure Motza ori aspertua zegoan kontu oiek aditzen. Oriatar oien tartean, Inazio Landa, Motzaren lagun xamarra zan. Ta ni ere antxe, urrutira gabe. Ta onela edo igualtsu bota zuan bertsoa, berari an bertan nik jaso:

Egarriturik nago  
ni katuba janda,  
bela eztegu erango  
kuadrilla onek emanda;  
berak diyotenez Aita  
Ferrer'en banda,  
iru ô lau oriyatarrakin  
Inazio Landa.

\* \* \*

Orain gure Juan Kruz Motzaren gazte denborak azalduko ditut. Gure aitak eta bere anaiak kontatu izan oi zutenez, gazetetan oso ikarakorra omen zan gure Motza.

Len aalan pasatzen omen ziran ibaiaren alde batetik bestera. Arrikada bat bide



Lasarte'tik, bañan aalan edo txalopan pasabear; bestela, Zubieta'ko Aliri'ko zubitik buelta eman bear, gutxienez iru kilometro bide oñez eginda, etxera joango baziran. Au tren-zubi egin zan arte.

Bilbao'tik Donostia'ra trena jarri zanean, Artutxa'ko ondotik pasatzen zan, da berreunen bat metrora egin zuten zubia. Gero, gaur dijoan tokitik egin zuten tren-bide ori.

Orduan lasai egoten zan Lasarte'n gure Motza ori; lagun-arte asko gustatzen, da presarik ez etxerako. Zubia nola egin zioten etxe ondoan, bost minutuko bidea etxeraño. Bañan emen zioz koska! Lotsatu egiten zan, sasoi arekin ikaratu egiten zala esateaz, ta ikaratu egiten zan, da ez gutxi ikaratu ere!

Bein illundu ezkerro, edozein erraño ikusi ta korri galanki etxea jo arte! Gero, tren-bidetik arriak kolkoan artuta joaten omen zan etxera.

Udaratik negura asko desberdintzen zan etxera-bidea. Ibai-bazter ura, udaran ostoz betea ta neguan soildua. Ta gure Motza orrek, illebeteak askotan pasatzen zituan Irun edo Tolosa aldean argintzan. Ta etxera biltzen zanean, askotan gabaz, gure Motza orri, ostoak mugitzen zira-

nean, ez iduritzen len bezela bidea zegoanik, bateonbat ote zegoan iduritzen, da kolkotik atera ta arriak *di-da* botatzen zituan. Ta urrengo egunean ere arbola zutik.

Etxera irixtean, ate ondoan uzten omen zituan, kolkotik aterata, arriak. Kopa edo saski bat bete egoten omen zan noiznai Artutxa'ko ate ondoan.

\* \* \*

Gure Motza ori ezkondu zan, da seme bat eta alaba bat izan zituan (2). Seme-alabak oso gazteak utzita, emaztea il zitzaien. Etzuan suerte ederra izan fameliarekin. Arreba Mariak jaso zituan aurrak Artutxa'ra, eta bera ere orrera biltzen zan, aita bezela, bere seme-alaba oietara.

Alaba amabi urterekin il zitzaien, aurreneko komunioa egin da laster. Semea ere gazterik, arrantzan zebillela, Oria'ko presa-pean sarearekin katiatuta. Gaur baño arrai geiago izaten zan; urak ere garbiagoak; ez da zail ere. Aberastasun ederra kendu diote gure ibai maiteari. Aiek

---

(2) Emaztea Mikaela Otxotorena zeritzan, eta Ermani'ko alaba zan.

amorra ta izokiak! Orain ez da usai zikiña besterik. Ba, Motzaren semea ibai ortan, arrantzan zebillela, ito zan.

Bakartu zan, beraz, gure Motza, ta berri ere arreba Mariagana bildu zan.

Eta bera zartu ta arrebari karga geiegi ez ematearren, Donostia'ko Miserikordia-ra joan zan. Bañan andik bereala etxeratu zan. Bere lagun batek, burla egitearren, bein onela galdetu zion:

—Motza, zer moduz Miserikordian?

Ta Motzak:

—Ura ez dek Miserikordiya! Ura dek miseri gorriya!

Bi aldiz esan zion.

\* \* \*

Gure Motza Bidasoaz beste aldeko euskaldunen artean ere bizi izan zan. Bera-ri entzun nion, bein baño geiagotan, gosse izugarriak pasa zituala an. Joan bazan joan, bereala etortzea ere ondo ez nunt bait iduritzen, da komeri ederrak pasa omen zituan. Aza jateko izan balu ere, geiago luzatuko zuala etorri gabe, bañan ezin zala denbora geiago iraun; osiñak bildu, aiek egosi ta jatera iritxi zala esaten zuan.

Gure Motzari jatea gustatzen zitzaionarekin, gorroto ederra artuko zion alde orri!

Jatea gustatu esan det, eta bai; ori nik dakit ondo, jatea gustatzen zitzaiola. Patrikadan duro bat baldin baneukan, eta Motza billatu, pozik gonbiatzen nuan, jan da edan egin ondoren bere bertso ta txistiak entzutearren. Ain zan atsegiña.

Jake-kontu ori, gaur baño errazago, izan ere, egiten zan orduan. Kazuelkada aundi xamarra izan arren, etzan sobratuko. Neroni ere jatun ona naiz; baño Motza tripatsuba benetan.

Esan oi zuan askotan, mundu ontan gusto asko zirala onak, bañan berak, bat aukeratzekotan, jatea aukeratuko zukeala.

\* \* \*

Len ere esan detan bezela, Artutxa'tik, etxea botata, atera bear izan zuten. Orduan ibaiaz beste aldera, Lasarte'ra, pasa ziran. Emen fabrika koxkor bat libre zegoan, da antxen jarri ziran bizi izaten. Belar igartu, bei, txekor ta berak, or denbora dexente pasa zuten.

Motza ta bere anai Andres ere bai, fa-

brika ortantxe, arreba Mariagana bizitzera etorrita zeuden.

Gero, fabrika ori lanean asi zan; *Guka* izeneko fabrika or antolatu zuten. Andik ere atera ta kalera etorri bearra izan zuten. Arraskilleta deitzen zaion etxera etorri ziran. Guk lagun-arte etxe orren azpian daukagu; *Sociedad Intza*. Egiten da franko itza!

Motza, ta bere anai Andres ere bai, elizatik aparte-antzean izaten zana zan. Bañan azken orduan Jaunarekin oso ondo bukatu ziran, bai Motza ta bai Andres.

\* \* \*

Bañan bi anaien eriotza kontatu baño len, Motzari bere illoba Joxe, Maria arrebaren seme gazteenarekin pasatakoa esango dizuet.

Mutil koxkor ori, Motzaren antzekoa zan txiste ta izketan. Ama Mariari entzun nion bein baño geiagotan: «Au Motzaren iguala degu!»

Ta Motzak ere maite zuan, da illoba orren kontu guzia sinisten zuan.

Motza ori gaixo-aldi batekin zegoan, eta arreba Mariak esaten zion:

—Motza, gauzak egin biaiukek; zartu-

ta ago ta osasuna ere ez daukak oso be-  
tea.

Ta Motzak beti entzungor:

—Neska, etzion presik! —eta abar da  
abar.

Beti ta beti gerorako. Iltzeko bildur  
bai, bañan eliz-lan ori beti gerorako.

Len aitatu detan illoba Joxe ori, pixka  
bat eldua zan; komorgatzeko edade ori.  
Goiz batean joan zaio oiean dagon toki-  
ra ta dei egiten dio:

—Osaba Motza! Elizakoak datozte!

Gure Motza orrek:

—Ago ixillik, gezurrik esan gabe!

Berriz ere illoba Joxek:

—Egitan badatoztela!

Ordurako illoba ori prest egon, da zer  
egin du? Artu du ardi-zintzarri bat, eta  
joan da atarira; jo diyo *tirrin-tirrin* zin-  
tzarri-soñua. Sinistu du gure Motzak. Sal-  
tatu da oietik eta belar-pillan gorde. Aren  
estuasuna, neri kontatu zidatenez!

Gaitz-aldi ura pasata, berriz ateratzen  
asi zan gure Motza ori. Ta danak ille ar-  
tzen ibilli zuten.

Denbora luze baño len, berriz erreti-

ratuta il zan, bañan oraingoan elizakoak artuta. (3)

Bai illoba Joxe ere il, mutil pizkor askoa. Ezkondu zan, bañan gure Jaunak nunbait etzuan nai izan mundu ontan luzaro eduki. Bi aingerutxo ta emaztea utzita, oso gazterik il zan. Gure Jaunak berekin izan ditzala osaba-illobak zeruan!

\* \* \*

Artutxa'ko anai-arreba oietan, bat gelditu zan ezkongai, zarrena, Andres. Aren eriotzan gertatua, oraindik ere gogoan dago Lasarte'n. Onentxegatik asi ere egin naiz Andresen azkena aipatzen.

San Pedro eguna zan. Alako egunez, Ernani'tik musika etortzen zan Lasarte'ra. Andres azkenetan zegoan. Elizakoak zeramazkiten Andresengana, ta musika joaz segitu zitzaion Jaunari aren etxeraño.

Beñere orlakorik etzan ikusi, ta geroztik ere nik ez det jakin. Bañan orrela tokatu zan ori. Gure Andresen azken Jaunartzea onelaxe izan zan.

---

(3) Donostia'ko Manteo'ko ospitalean il zan, 1940'garren urteko Urriaren 18'an, goizeko ordu-bietan, "*a consecuencia de epiteloma de pílora*", eriotz-ageriak dionez. (Ospitaleko 14'garren eriotz-ageri-liburua, 162'garren orria).

## TXIRRITA, GAZTELU TA FERMIN IMAZ

Oraingo au neronek berrogei ta amar bat urte Lasarte'n sagardotegian entzuna da, Motzak Txirrita, Gaztelu ta Fermin Imaz'i botia.

Txirrita oso deitua izaten zan erriko festetara. Badakizute orduko festa zer izaten zan: Meza nagusi ondoren dantzak, pelota-partiduren bat eta bertsolariak.

Gure Lasarte ontan ere San Pedro patroia eta zaindari, ta jakiña izaten zan Txirrita emen izatea. Illaren 13'an, San Antoniotan, Eriñatzu'ra, bere jaio-lekura. Danok dakizuten bezela, Txirrita Latze'n jaioa baitzan. Andik Ernani'ra San Juanetan; Ernani'tik Lasarte'ra San Pedrotan; Lasarte'tik Usurbill'a Santa Isabelan.

Ta emen bazan «San Pedro-kupela» deitzen zitzaiona, Yurrita'nean, gaur Aldaz'ek Muebleriya daukan ortantxe. Kupela ori izen ortakoa zan, beti San Pedro bezperan jarri oi zalako txotxean.



Urte artan ere saltzen zegoan sagardo ederra, ta len aitaturako iru bertsolari oiek or zeuden gurekin batera, bertso bota ta bertso bota, ta guk sagardo atera ta edan da bertsoak entzun.

Onela gaudela, gure Juan Kruz Motza sartu da. Asi giñan:

—Ia, Motza, bota zazu bertso bat!

Eta gure Motza ori, uzkur xamar, baña gure esanaren bidez, bota du bertso bat, Txirrita, Gaztelu ta Fermin Imaz, irurak, bertso batean sartuaz. Ara nola:

Egi bat esateko  
ez natxiok dudak:  
Fermin, i ez au, ez,  
ortaratu urak;  
Txirrita mozkortzen dik  
arduan figurak;  
gaitz-klase bat daukate  
Gaztelu ta irurak.

Danak guk txalotu genduan da berak alde egin zuan, ez baitzuan aotik aora, Txirritak-eta bezela, bota ta bota aritze-ko etorri ugaririk. Aldika-aldika onelakoxe zirik sartu ta, danak parrez utzita, alde!

## IRU LENGUSU-GAIAK

Zubietako Zugazti'n Motzak lengusua zeukan, neskatxa gaztea, eta iru mutil zebiltzen berari segika, irurak Motzarekin askotan tabernan biltzen ziranak.

Neskatxa ori maitea zuan Motzak, eta bein batean asi zitzaien mutil oiri zerbait esan naiean, bertsoak botiaz. Mutil oietako bati deitzen zioten Manuel Kokotz; besteari Domingo Txikiya, ta besteari Lasa.

Aurrena onela esan zion Manuel Kokotzi:

Egi bat esateko  
ez dadukat lotsik,  
ez det apartatuko  
luzeik eta motzik;  
berriz ara juten bada  
Manuel Kokotzik,  
ez dik ekarri biar  
bizkarreko otzik!

Ori bota zuanean, Domingo Txikiyak onela esan zuan:

—Ori dek, Motza!

Ta Motzak onela bota zion bigarrena  
Manuel Kokotzi:

Milla pezta izan arren  
iru edo lau're,  
ez degu onen biarrik  
diru asko bau're;  
beraz Motzaren lengusu  
in biar dula au're,  
len ê kasta txarretik  
obetago gaure!

Lasak ere, bigarrena Manueli bota zio-  
nean, esan zuan:

—Ori dek!

Ta Motzak:

Motzak esango ditu  
berriz ê egiyak;  
ez du gauz onik in biar  
Domingo Txikiyak;  
galazi biar zaizka  
arako ibiliyak,  
bestela zikiatu  
Lasa eta biyak.

Orduan asarre Lasa ta Domingo Txi-  
kiya.

Aditzen zeuden guziak farrez, ta gero onela bota zion Lasa'ri aparte, ardo-zale xamarra ta musu gorria zan da:

Aurten etzaigu Lasi'k  
larru-berrituko,  
lenguai eutsita're  
ez gera arrituko;  
arduak ez baliyo  
gora korrituko,  
muturrik elitzaiokek  
orla gorrituko.

Ara iru lengusu-gaiak nola utzi zituan gure Juan Kruz Beloki Motzak.

\* \* \*

Beste egun batean Manuel Kokotz orri onela bota zion, Zubieta'ko festetan alkarrekin topo eginda:

Batian zirri eta  
bestietan musu,  
Santiyo-illunarrian  
ibillik dituzu;  
baldin egiten bada  
Motzaren lengusu,  
sorta bat lastorekin  
emango diyot su.

## JOXE MIEL KRISTO

Motza elizatik aparte xamar ibiltzen zana zan, baña gizon atsegiña. Iñorekin aserretzerik etzizaion gustatzen.

Berarengana askotan juntatzen bat bazuan; Joxe Miel *Kristo* esanda ezagutzen zan. Au ere bertsolari xamarra zan, baña Motza añakoa ez; baña biak aritu izan ziran alkarri botatzen.

Biak ere beartsu; lan egiñez bizi bear.

Joxe Miel, elizkoia izan arren, litxarrerero xamarra zan; eta gure Motzak ezin eramane izaten zuan.

*Kristo* orri, gazte edo sasoikoa zala, polita gertatu zitzaion. Lasarte goiko aldean bada baserri bat Zatain-etxeberri izenekoa, ta bertan itxu bat bizi zan. Zakur batekin ibiltzen omen zan, eta berari berdin zitzaion gaua izan edo eguna izan; berdin ikusten.

Batean, bere soroan arto-soñua entzun zuan, da bere artean onela esan zuan:

—Arto-lapurretan ari dek baten bat!

Agindu dio zakurrari:

—Ia, Txato, arrapatu zak! Eldu iok!

Abiatu da zakurra.

—Alto emen! —deitzen du itxuak—. Igual da *Kristo* baño okerragoa bazera ere!

Ta —au da polita— gure Joxe Miel *Kristo* izan.

Zakurrak eta biak geratu dute gizona, ta gure Joxe Miel triste. Esaten dio itxuari: ogei ta amar duro emango zio-la, ixilik edukitzen bazuan, beretzat desonra zala ta abar.

Ta itxuak:

—Zertan etorri aiz? Ezpaintedan etorri, nik ez iñuan arrapatuko!

Konpondu dira ogei ta amar duro emateko, ta ixilduko zuala.

Eguna joan ta eguna etorri, ta ogei ta amar duroak falta itxuak, eta or esan du nola arrapatu duan Joxe Miel *Kristo* arto-lapurretan. Litxarrerua izan gure *Kristo!*

\* \* \*

*Kristo* orren emazteari *Ama Birjiña* esaten zioten. Gaizkitu da, ta au ere polita gertatu zan.

Errian bazan taxista bat, Joxe Mari, *San Jose* apellidua zuana. Etorri zaio *Kristo* taxista orri, emaztea klinikara eramateko billa. Baietz, eramango zuala, ta an joan ziran *San Jose* ta *Kristo*, *Ama Birjiña* artuta, klinikara. Taxistak askotan kontatzen zuan.

\* \* \*

Orrelakoxe famatua zan gure Joxe Miel *Kristo*, eta Motzak beti zirrikaka erabiltzen zuan.

Batean Motzak berak kantatu zizkigun Joxe Miel orrentzat jarri zituan bertso batzuk, eta guri oso politak irudituta, bakar batzuk baditugu ikasiak, eta goguan dauzkatanak jartzera nua:

- 1/ Zer klase aizen merezi ukek  
zabaldutzia Gazetan,  
fedea otzian sartze'aizelako  
relijijyoko gauzetan;  
illian bein konfesatzera  
eta jaiero mezetan,  
alare pozik salduko ukek  
Jainkua iru pezetan.

2/ Eleiz parian txapel'eantzita,  
errezatzen egunero,  
iñoren bistan itxur oik einda  
Jainkua saltzera gero;  
iru pezetan ezin baukek  
jatxiko itzake berô,  
biyian ere gutxi piyatu  
erostuna izan ezkerô.

3/ Ai, Joxe Miel, ez aiz saiatzen  
ire triparen kaltera,  
jendian bistan itxur oik einda  
elizâ ua jatera;  
biyian ezin saldu baukek  
jatxiko itzake batera,  
ik Jaungoikua zenbat maite'ken  
ortik kontubak atera.

4/ Bost milla urtian Judas ari dek  
itzat kaldera montatzen,  
gau eta egun irureun gizon  
ai dituk ikatz botatzen;  
ik, gizajo orrek, orrelakorik  
ez dek askorik pentsatzen,  
a zer berotuk dauzkatzikenak  
ezpaiz zuzenô portatzen!



5/ Lengo batian ni egon nitzan  
kaldera orri begira,  
aireplanuak zazpi orduban  
ematen ziotek jira;  
esango'zute aundiya dala  
arren barrengo kabira,  
bai biar ere orren pekatu  
danak sartuko badira.

6/ I, Joxe Miel, etzakit nola  
bizi aizen orren asto,  
mingañetik pin itzegin arren  
biyotzetik ago basto;  
Judas ari dek i erretzeko  
gauzak prestatzen abasto,  
Naparrua'ra eskatu zetik  
berreun bagoikada lasto.

7/ A, Joxe Miel, ik ez dadukak  
Judasena bildurrika,  
ez gero pentsa eskapatzerik  
aien tartetik korrika;  
Luzifer laste asiko dek  
karrazi edo kurrinka,  
Frantziyan ere erosi zetik  
iru poxpolo-fabrika.

8/ Iñon esanik eztu sinisten  
onek berialakuan,  
ez gero pentsa beiratze'uenik  
gizena edo flakuan;  
Luzifer zio berruntziyakin,  
Judasek berriz kakuan,  
aidi igasi in diyenikan  
eztek oraindañokuan.

«XEBEROK KANTATZEN DU...»

Xebero, armarioak egiten ta konpon-  
tzen aritzen zan arotz bat zan; bértso-  
tan ere lardaskatzen zan.

Egun batez Lasarte'ko Motzak bertso  
au kantatu zion:

Xeberok kantatzen du  
elizako bozan,  
bera baño obiagoik  
ez dalako pozan,  
au're egun batian  
mundura sortu zan,  
soka bat ekatzue  
postiari lotzân. (1)

---

(1) lotzân = lotu dezadan.

Juan Jose Lizarreta Aginaga, Usurbil.

## «ORRI GUSTATZEN ZAIO...»

Motzak bazuan beste gizon gazte bat, beti tenta ta tenta aritzen zitzaiona. Zurruta askotxo gustatzen zitzaion, ta jokatzea ere bai, bai bola-lekuan ta kartetan da nun-nai.

Batean onela bota zizkan Motzak be-deratzi puntuko bertsoak:

Orri gustatzen zaio  
saltsa ta jokua,  
opiziyua du be-  
re gustokua;  
arrazoyik iñori  
eman gabekua,  
enatorrek ni berriz  
au dagon lekuâ;  
gorputza plakua,  
zorrotza mokua,  
luzia lepua,  
antzarran moukua...  
au nork egin ote zun  
forma ontakua?

Tabernâ goiz etorri,  
etxera berandu,  
onek ardo geiegi  
gaur ere eran du,  
nunebait e au ezta  
baraurik egondu,  
orla mozkortzen danak  
juiziyua nun du?  
andriak mantendu,  
ederki jaten du,  
gorputzai lagundu,  
mingaña legundu...  
orduban arrazoia  
oni nork kendu?

Sei bertso omen ziran.

## PIZTIEN BERTSOAK

Motzak, Pedro Maria Otaño'k txepetxa goratuaz bertsoak jarri zituanean, esaten omen zuan txepetxa baño obeak edo meritu geiago dutenak bazirala bere ustez: erlea, txingorria, enaba ta abar ta abar. Auei Motzak jarritako bertsoak, edo, obeto esateko, arrek botatakoak idatzi izan balira, naiago nuan; baña nik berari entzun da ikasitakoak jarriko ditut. Zeatasun guziz ezpadaude ere, barkatu.

Enabari jarriak geiago badira, baña neri gogoratzen zaizkidanak iru dira, ta ara emen:

... egunez loi karriatzen  
nekatutzen zaio aba,  
alanbre gañian deskansatzen  
pasatutzen du gaba,  
txepetx txar orri bere bentaja  
emango zaio nai bada,  
ikusi dedan langillerikan  
obenetakua bada.

Kabiya egiten ez da asiko  
txepetxa arra bezin goiz,  
baño ez du iñork esan biarrik,  
berak badaki nun da noiz,  
lanian ai dala beira egotia  
suertatu izan zait iñoiz,  
tellatu azpian kapiyuan kontra (1)  
paretari erasten loiz,  
kanpotik orla antolatzen du,  
barrena berriz algadoiz.

### Txingurriari:

Txingurriyak ere badaduka  
naiko adelantua,  
orrek lurretan karriatzen du  
sekulako elementua,  
udan kanpotik ateratzen du  
bêtzat neguko kontua,  
azkenerako osatutzen du  
torre gisako muntua...  
txepetxa dala azkarra baña  
ezta bera're tontua.

### Erleari:

Erliak ere udan kanpotik  
etxera eramaten du,  
ark ê badaki bere buruba  
neguban nola mantendu;

---

(1) kapiyua = kapiriyua = *alero*.

iñori eztiyo ezer ostutzen,  
berak egiña jaten du,  
langille danak alkar artuta  
alperra ito ta kendu...  
guk ere askoz obe genikek  
ori egingo bagendu.

Armiarmaren merituak eta beste pizti askorenak ere kantatu edo esaten zituán, baña guk orduan ez idatzi ta orain miñez gaude.

Entzun izan det Asteasu'ko Aranburu-berri'k Motzaren bertso auetaz jabetu eta, bereak balitu bezela, bertso-paper batean publikatu zituala.

(Aranburu-berri'ren bertso-paper ori bi aldiz argitaratu zan: bata, Tolosa'n: «Navarro del Teso y Compañía — Tolosa»; bestea Erretereria'n: «Imp. Macazaga — Rentería». Amairu bertso ditu. Oietako zazpi, Motzarenak omen dira: bata, seigarrena, txingurriarena; bestea, zazpigarrena, erlearena; gañerako bostak, 1-5'garrenak, emen jarriko ditugu:)

Mats ta masusta, piko, mizpira,  
perill, intxaur da udare,  
labe, labetxo, txabola, borda,  
etxe eta ziudade,



sagar, sagardo, barril da tiñi,  
upela eta tolare...  
osahunakin oiek ditunak  
bizi litakek ola're.

Besabe, are, bost-ortz ta gurdi,  
akullu, uztarri ta ere, (2)  
atxur ta pala, sega ta itai,  
sarde eta eskobare,  
zerri ta zakur, asto ta katu,  
auntz, ardi, bei ta abere,  
aita ta ama, seme ta alabak  
preziso biar dirade...  
baserritarra biar bezela  
osatze'ote da ala're?

Buztin, lur, ondar, iyeltso, porlan,  
arri, iraulika ta kare,  
sube, suangil, ziraun da muskar,  
kirkir, karakol da bare,  
azaiak eta basakatubak  
egunez gordeta daude,  
gaubez jateko bestek egiña  
iñor akordatu gabe.

Sagu, arratoi, sator, satitzu,  
bele, mika, iskiñosuak,

---

(2) ere = ede.

txepetx, pintxana, irriu, enaba,  
okil, birigarro, usuak,  
ate, antzara, putre, kurrillo,  
ollagor, eper, pausuak, (3)  
gibel da bare, biotz, birika,  
lukainka, arrautz, txoizuak,  
Motzak bazekik nola jartze'idan  
kaxuelkara gozuak.

Erropa sitsak, aza bariak,  
eta arbiya berriz arrak,  
burniya ordoiak, egurra pipiak,  
soroa otia ta larrak,  
artua olluak, ezkurra zerrik  
eta gaztaña azkonarrak,  
atzetik saguk ta arratoiak,  
aik uzte'ituzten kondarrak,  
jaten ditula, esaten dute,  
lenoko guraso zarrak (4)

---

(3) pausuak = paga-usuak.

(4) Paperean, *lenagoko guraso zarrak* zion; luze beraz, ta *lenoko jarri* degu.

Txingurriaren bertsoa Migel Zuaznabar'ek etzekian oso-osorik; bertso-paperaren bidez osatu degu. Bestela, bi desberdintasun zituzten alkarrekin: 3'garrenean, Zuaznabar-ek *orrek* eta bertso-paperak *arrek*; ta 7'garrenean, Zuaznabar'ek *osatutzen du*, eta bertso-paperak *formatutzen du*.

Bertso auetako bakar batzuk beste tokitan ere arkitu nituan.

Tolosa'ko Estanis Urruzola'ren eskuz idatzitako kuadernoan:

## Txingurriarena:

Txingurriak berak badauka  
sekulako adelantua,  
arek lurretik karriatzen du  
sekulako elementua,  
aizkenerako formatutzen du  
dorre gixako muntua,  
edur-girotan etzaio falta  
etxian alimentua,  
txepetxa dala azkarra baña  
ez dek bera ere tontua.

Erlearena: 1: udaz kanpotik; 3: arek badaki; 8: alperrai; 9: obe genduke.

Beste bost bertsoetan aurrena, guk, bertso-pape-  
ratik artuta, lau puntukoa jarri degu. Urruzola'ren  
kuadernoak bostgarrena ere badakar, eta bera da  
bertso-paperakin daukan desberdintasuna:

mundu guzia batek beria  
ta ezin bizi ala're.

\* \* \*

Jose Agirre "Oanda" bertsolariak iru bertso kan-  
tatu zizkidan, bañan beste onela:

Txingurriyak ere badaduka  
bere adelantua,  
udaran ondo ateratzen du  
negurako kontua,  
lurrarekin formatutzen du  
torre gisako montua,  
txepetxa dala abilla baño  
ez da bera're tontua.

Ziraun, ziraunkil musker ta suge  
kirkil, karakol ta bare,  
zakur ta katu, astoa ta bei,  
aunz, ardi eta abere,

azariya ta basakatua  
egunaz gordeta daude  
gabaz jateko bestek egiña  
iñor akordatu gabe.

Buztin, lur, porlan, arri, iraulika,  
igeltsua eta kare,  
besabe, are, bost-ortz ta gurdi,  
sega ta eskubare,  
sagar, sagardo, upel ta tine,  
eta gañera tolare,  
osasunekin oiek ditunak  
bizi leixkekek ola're.

**MANUEL ANDRES ETA LORENZO  
ZULAIKA BERTSOLARIAK**

## MANUEL ANDRES ZULAIKA ARISTONDO

Manuel Andres eta Lorenzo Zulaika bertsolariak, aita-semeak dira. Gaur egunean semea bakarrik bizi da.

Aita, Getaria'n, Askizu ballaran eta Aote-txiki baserrian jaio zan, 1858'garren urteko Otsaillaren 4'an. Gurasoak, Migel eta Bentura, biak getariarrak ziran. (1)

Manuel Andres'ek, Getaria'n jaioa izanagatik ere, Elgoibar'en egin zuan bere denborarik geiena.

Elgoibar'ko Untzon baserrian bizi izana zalako, Untzon bertsolaria esaten zioten. Untzon baserri ori, Azkarate gaña baño lentxeago omen dago.

Manuel Andres, tabernan eta lagun artean saiatzen zan bertsotan. Bere seme Lorenzok aitaren sei bertso eman diz-

---

(1) Getaria'ko bataio-agiri-liburuetatik. Au ez beste argibide guziak, Manuel Andresen seme Lorenzori zor dizkiogu.

kigu. Urrengo orri-aldeetan arkituko ditu irakurleak.

Manuel Andres, Maria Arrieta'rekin esposatu zan.

1926'garren urteko Agorraren 19'an ilzan, 68 urterekin, lan egiten zuan fabrikari min artuta.

## BI PEZETAKO MULTA

Bein batez, bi pezetako multa eman zion zeladoreak Manuel Andres Zulaika'ri bear etzan tokian pixa egiten ikusi zualako. Ta Manuel Andresek, multa pagatu ondoren, bertso auek jarri zituan.

1/ Manuel Andres Askizu'arra,  
gizon zarra ta pobria,  
dana dan gauza aitortutzia  
askoz itxura obia;  
nere barrenan arkitutzen da  
pena eta doloria,  
bertso batzuek ateratzeko  
artua nago idia.

2/ Eguna pasa fabrikan eta  
etxera naiz etorria,  
beti bezela nere andriak  
pronto zeukan aparia;  
nola detan nik gaztetandikan  
oso amigo aundia,  
pensatu nuen bisitatzia  
Marzelo tabernaria.



- 3/ Marzelonera abiatuta  
errebaleko kalia  
xixa-larriak artu ninduen  
oso estadu txarrian;  
deskargatzia pensatu nuen  
ezkerreko bazterrian,  
enemigua jarri zitzaidan  
zigorrarekin aurrian.
- 4/ Gobernadore batek bezela  
eman ziran sententzia,  
bi peztakua pagau ta libre  
zure abertientzia;  
konsideratzen jarri ezkerro  
ez kantidade aundia,  
jendiak parra egin biarra  
ori da penagarria.
- 5/ Ori eta ni gertatzen bada  
iñork errekistatzia,  
zeñek garbiô ote daukagu  
aurria edo atzia?  
irurogei ta iru urteko  
aitona kastigatzia,  
zuk ez bezela eraman det nik  
artu nuen gurutzia. (1)

---

(1) Multa-jartzallea bizi-alarguna baitzan.

## LENGO BERTSOLARIAK ZEIN ZIRAN

Bertsolariak lenago ziran  
Xenpelar eta Oloki,  
Juan Jose Alkain onena zala  
jende guziak badaki;  
premiak nola agintzen zien  
kantatzen zuten ederki,  
Udarreik beti jarraitzen zuen  
oso garbi ta egoki...  
gauza asko baño naiago nuke  
aien tamañan baneki!

## LORENZO ZULAIKA ARRIETA

Lorenzo Zulaika Arrieta bertsolaria, Elgoibar'en jaio zan, 1893'garren urtean, Otsaillaren 24'an.

Bere bizitzaren goraberak argitzearren, eskutitz bat egin digu Lorenzo Zulai-ka'k berak. Ona emen zer dion:

«...Zein kaletan jaiua naizen Elgoi-  
barren? Errosario-kalia du izena. Gizo-  
nenia esaten zioten etxe batian jaio ni-  
tzala esaten zidaten nere gurasuak.

Gero, zortzi edo bedratzi urtekin, Aia'-  
ko Santiago ballaran dagon Arrazubi-al-  
dekoa izena duan baserrira ekarri nin-  
duten.

Emen urte bat-edo pasata, berriz El-  
goibarra eraman nindun aita zanak, le-  
nengo Jaun-artzia egiteko dotriña ikas-  
tera.

Jaun-artzia eñ nuenian, ostera berriz  
Aia'ko Arrazubi-torre izena duan base-  
rrira; ballara len esan dedana da, San-  
tiago.

Etxe ontan amaika urtekin jun eta ogei ta beatzi kunplituta ezkontzeko irten nitzan. Emaztia, ballara ontan dagon baserri batekua da; Larrume du izena.

Ezkondu ta Zarautza etorri giñan, eta emen ebanisteri batian asi nintzan.

Ogei ta bi illabete emen pasata, oraiñ gauden lekura jardineri ni, eta, nagusiak etorritakuan, erropa garbitzen emaztia.

Emen emezortzi urte pasata, Billabonara, Agaitz-zarra izena duan basarrira juan giñan.

An beste beatzi urte pasa ginduzen, eta lengo lekura osteri; emen bizi gera trankil.»

Agaitz-zarra, Zulaika'k dion bezela, Billabona'ko partean dago, bañan Aduna'ko zubia aurre-aurrean duala. Orregatik, erri onekin zituan bere artu-eman guziak edo geienak beintzat. Ain zuzen, bere bertsoetatik asko Aduna'ko aldi ontan jarri zituan, eta erri onetaz aitamen ugari egiten du.

Emengo bertso guziak, berak orri batzuetan idatzi ta guk oietatik artuak ditugu.

## GIZONAK PERIAN

- 1/ Gizon batzuek perira juanda  
ondo ikusik dauzkat nik  
arratsaldia pasa baño len  
ardoz gañezka egiñik;  
erronkak jo ta birauak bota  
iñun kabitu eziñik,  
ez nuen uste ikusterikan  
modu ortako personik,  
orrelakuak azken orduan  
eztu izango gauz onik.
  
- 2/ Saldu-erosik eiteko dira  
errietako periak,  
ortarakoxe ekartze'itue  
ganadu ta aberiak;  
etxera abitu biar danian  
tabernarako iriak,  
illuntzerako jarritzen dira  
gorriturikan begiak,  
orrelakuak ikusten ditu  
Zulaika bertsolariak.

3/ Iñoiz sarritan juan oi giñaden  
Tolosa erriko perira,  
antxe gustora ibiltzen nitzan  
ganaduari begira;  
gero lagunak juntatu eta  
orduan ardotegira,  
kontu batzuek alkarri esan da  
danok zintzo erretira,  
basarritako gizon jatorrak  
orrelakoxiak dira.

4/ Ni naiz Zulaika Elgoibartarra  
Zarautz'ko errin naguana,  
ofiziorik prinzipalena  
jardiñerua dedana;  
iñork deitutzen dien lekuan  
pozik egiten det lana,  
edade piskat iduki arren  
saiatzen naiz al dedana,  
iñun lanikan baldin badago  
abisatu neregana.

(1949)

BERTSO BERRIAK  
ADUNA'KO ERRIARI  
LORENZO ZULAIKA'K JARRIAK

1/ Zeruko Aitak laguntzen badit  
dijoaz bertso berriak,  
nola Aduna'n egin dituzten  
lantegi gustagarriak:  
ur-iturriak, alkar artuta,  
danak dauzkate jarriak,  
guretzat ere ez al dirade  
gauza istimagarriak?  
premiatzia merezi luke  
ola dagan erriak.

2/ Aiuntamentun disponitu zan  
urak jartzia aurrena,  
famelirako izan leikien  
gauzarikan biarrena;  
erritarrari deitu zioten  
danak biltzeko urrena,  
esanaz ura ekar zeikiela  
Ulanberro'tik barrena,  
ai ura poza eta destetxa  
gero Adunatarrena!

- 3/ Aduna orretan bizi-lagunak  
laister ziran alkartuak,  
nere ustetan ez dira beintzat  
burutik oso lotuak;  
ur-iturriak danen artian  
etxetan jarritakuak,  
gure Jainkuak lan orietan  
apropos aututakuak,  
Gipuzkoa guzian bai ote daude  
bi erri orrelakuak?
- 4/ Nekia pranko izan zuben, bai,  
amaika illabetian,  
danak bai zintzo segitu ere  
guztizko borondatian;  
prueba txiki bat egiña zuten  
geroko egun batian,  
urak bai txistu ekarri ere  
kañu-zulua betian,  
ai zer bañua artuko nuben  
izan banitzan partian!
- 5/ Erri ortako neskatx ta mutil,  
senar eta emaztiak,  
bizi-moduan saiatutzeko  
ez daude oso tristiak;  
ur-iturriak sartu dituzte  
kentzeko zikin pestiak,  
beti gustua emate'it neri  
gauza oiek ikustiak,  
olaxen jarri biar lirake  
baserri-etxe guztiak.



6/ Iri, ganadu, asto ta guzti,  
danak egin zuten lana,  
guztiok ondo dakiguna da  
ura gauza ona dana,  
jaio orduko aur txikientzat  
aurrena biartzen dana;  
akaso norbait izan liteke  
orren kontra ari dana,  
nik erantzuna emango diyot,  
datorrela neregana!

7/ Ur-iturriko lantegi ortan  
gogotikan asi zian,  
danak bai bizkor segitu ere  
kasikan urte guzian;  
funtzio ederra bedeinkatuaz  
egin zuten bukatzian,  
egun arretan ango aitonak  
oso asarre etzian,  
beren tripotxak bapo beteta  
etxera juanak bazian.

8/ Adunatarrak ur ekartzeko  
zeuken propositu fiña,  
urte buruan, alkar artuta,  
egin dute alegiña;  
auzokoen batek euki lezake  
ori supritu eziña,  
zenbait personak beti izaten du  
gaizki ikusteko griña,  
obe genduke erri guziak  
ola batuko bagiña!

- 9/ Belkoain mendian bazter batian  
sortutzen da iturria,  
askoz geiago biarda ere  
badu naiko etorria;  
familirako ura naikua  
ez al da gustagarria?  
otz eta bero etxe batzutan  
omen daukate jarria,  
bedeinkatua izan dedilla  
Adunatarren erria!
- 10/ Alkate jauna buru dutela,  
gaiñera errejidore,  
Aduna'n diran bizi-lagunak  
ondo alkartuak dare;  
ur-iturri ta garbi-lekuak  
jarriak dauzke dotore,  
lan egiteko nekiagatik  
kupirik etzan batere,  
naiago nuke oiek bezela  
bagendukake guk ere!
- 11/ Nere ustetan ondo egin det  
ateratzia bertsuak,  
gezurrik gabe deklaratuaz  
Adunatarren kasuak;  
gazte leialak, izan zaitezte  
aurrera ere zintzuak,  
beti maitiak iza'itzazute  
zarrak eta gurasuak,  
birtute ori eman deigula  
Jaungoiko amorosuak.

12/ Beñere ez naiz, zenbait bezela,  
loria edo gizona,  
ofiziyua jardinerua,  
Zarautz'en bizi izena,  
Billabona'ko erri noblian  
orain arkitzen naizena,  
apellidua Zulaika det,  
Lorenzo daukat izena...  
señia oiekin galdetu zazu  
nere billa zabiltzena.

## «UDABERRIYAN...»

- 1/ Udaberriyan txorik bezela  
astera nua kantari,  
egualdiya're polita dago,  
poza ematen dit neri;  
osasunakin ederki nabil  
eskerrak Jaungoikuari,  
beste ainbeste opa dizuet  
biotz-biotzez danori.
  
- 2/ Kristau maitiak, birian datoz  
ordu ikaragarriak  
zer sententzia izango ote du  
munduko arrokeriak  
eta gañera itxas-ertzeko  
jazkera lotsagarriak?  
oiek utzitzen ez baditugu  
dauzkagu egun gorriak.
  
- 3/ Zenbait alditan irakurtzen det  
gabaz edo egunian,  
errespetuan ibilitzeko  
gabiltzan leku danian,  
etsai zarraren zirika-aldiak  
etortzen zaizkigunian,  
Aita gure bat otoitz eiteko  
Jaiñkuaren izenian.

## ERIOZARI

- 1/ Goguan artu biar ditugu  
Aita Praillien esanak,  
ondo dakigu ilko gerala  
mundu onetan geranak;  
Jesusen aurrên jarriko gera  
epai zorrotzian danak,  
inpernu gorri ikusiko du  
zerua galtzen duanak.
  
- 2/ Iñork eztaki azken ordua  
zeñek daukagun urrian,  
orregatikan guziok gaude  
oso arrisku txarrian;  
pobre ta aberats arkitzen gera  
laguntzaren biarrian,  
Jesus maitia, erruki zaite  
gure eriotz larrian!
  
- 3/ Gaiztuak izan bagera ere  
onera muda gaitian,  
azken orduan deabru zarrak  
lotu ez gaitzan katian;  
oker-birera dijuan ori  
bere buruen kaltian,  
gero anima entregatzen du  
etsai beltzaren atian.

## EMIL SATOPECK

- 1/ Emil Satopeck ikusi degu  
laisterkaria bikaiña,  
gorputz ederra, petxua lasa,  
pausua berriz ariña;  
lenago ere euki biar du  
egiñik zenbat azaiña,  
oraiñdik ere gazte oieri  
erraz artze'ie tamaiña.
  
- 2/ Ogei ta amabost urte kunplituk  
omen ditu gizon orrek,  
bestiak gaztek izanagatik  
eztu bildurtzen ezerrek;  
ori aurrena etortzerikan  
etzuen uste askorek,  
berriz ze lanak emango ditu  
etortzen bada Satopeck!

## BERTSO BERRIAK

### LENBIZIKO KLINIKAN OPERATU ZUTENIAN ZULAIKA'K JARRIAK

- 1/ Gaxorik pasa ditut  
iru illabete,  
uste gabeko gaitzak  
jotzen baidute;  
sendagille jauneri  
abixau diote  
buelta bat egiteko  
baldin al badute;  
etorri dirate,  
negon oso triste,  
indizioz bete,  
gerritikan fuerte...  
danbolin bat bezela  
zulatu naute.

2/ Gaitz ori ez omen da  
kontajiosua,  
baña bizitzeko bai  
peligrosua;  
oñazez pasia det  
Abendu osua,  
uraxen etzan beintzat  
neretzat gozua;  
mediku zintzua,  
artu dit pulsua,  
da errukitsua,  
ez orgullosua,  
gaixuak animatzen  
bai gustosua.

3/ Mediku gaztia da,  
bai balientia,  
edozer gauzetako  
korrientia;  
gorputz zuzena eta  
supizientia,  
al duena egiten  
oso amantia;  
da gizon tentia,  
memoriz betia,  
mediku maitia,  
etorri zaitia,  
pozik irikiko'izut  
zuri atia!



(1956)

GERO BESTE LAU ALDIZ  
OPERATU ONDOREN  
JARRITAKO BERTSUAK

(Klinika San Antonio'n jarriak, 1956)

1/ Ogei egun baditut  
orantxe klinikan  
etxera bialtzeko  
deseaturikan;  
piskaten irteteko  
ezta itxurikan,  
nunbait debil samarra  
nago oraiñdikan...  
Jesus, libra nazazu  
etxe ontatikan!

2/ Amaiketan dadukat  
medikun bisita,  
bai gizon dotoriak  
zuriaz jantzita;  
nere ikara berriz  
oiek ikusita,  
batek kura egiten dit,  
bestiak eutsita,  
esanaz: «Aua euki  
piskaten itxita!»

3/ Gero etortzen zaizkit  
illuntze aldera  
zer moduz ote nauan  
berriz galdetzera;  
oiek erdera eta  
nik berriz euskera,  
nolabait e beñepeñ  
entenditzen gera,  
«¡Hasta mañana!» esanda  
dijuaz ostera.

4/ Gaizkitzen asi nitzan  
oraiñ iru urte,  
laugarren go aldian  
operatu naute;  
eun da berrogei kura  
egin dizkiate,  
nere suspiriuak  
oiek pasa arte!  
denak supritu biar  
biotzetik fuerte!

5/ Operatzeko salan  
iyo nitzan maira,  
orazio egiñaz  
Jesusi begira;  
lau medikuk elduta  
eman zien jira,  
goraize ta kutxillo  
laister asten dira,  
kamillan bialtzeko  
biar dun tokira.

6/ Jesus maitia, eman  
zaidazu argia,  
bolara onetantxe  
badaukat premia;  
Birjiña Karmengua,  
nere zaiñdaria,  
arren erruki zaite,  
Amatxo neria,  
zurekin artu nai det  
zeruko gloria!

## ADUNA'KO ERRIARI ETA LAGUNARI

1/ Añ maite detan erri polita  
ortxen dadukat Aduna,  
orko jendiak zelebrazten du  
Ama Birjiña eguna;  
zeru goitikan begira dago  
guri asko nai diguna,  
nundikan nora ote gabiltzan  
beti zaitzen daukaguna,  
txintxo ibiltzen saia liteke  
arekin bizi nai duna.

2/ Ama Birjiñak bere eskutik  
arren iduki gaitzala,  
denok pakian biar genduke  
Jesus izan zan bezela;  
adiskidia, sinistu zazu  
egiaz ari naizela,  
inperua're ortxen daukagu  
gaiztuentzako kartzela,  
bide onian jarri gaitian,  
galduak gera bestela.

3/ Nere lagun bat or ikusten det  
Migel izena duana,  
nere bertsuak aditu eta  
isill askorik dauana;  
erri onetan euki biar du  
kantu-lanian afana,  
neronek ere igartzen diot  
bertsuetan ona dana,  
broma piska bat jarri dezagun,  
arrima zaite nigana.

4/ Nere biotza saltoka dabil,  
nago estadu txarrian,  
pentsaturikan Migel nerekin  
ote daguan aserrian;  
nik beintzat beti nai izaten det  
lagun onakin urrian,  
zu baño gizon oberik ezta  
Gipuzkua'ko lurrian,  
orregatikan juez zauzkate  
Adunatarren errian.

5/ Kantatu nai ta ezin asmatu  
auxen da nere larria,  
nere lanari artu eziñik  
biar bezela neurria;  
erri onetan ikusi det gaur  
gauza bat gustagarria:  
lenago urak ekarri eta  
oraiñ erloju berria...  
zazpi xoxekin ezta jarritzen  
ola daguan erria!

6/ Nere barrenge sentimentu bat  
biaizut adierazi,  
biotzan erdin sartua daukat,  
iñork ezin kendu-azi:  
aspaldi ontan alkarrengandik  
ibilli gera igesi,  
bi illebeta izango dira  
etzaitutela ikusi,  
bisitatxo bat zuk egitia  
guk ez al degu merezi?

## ERRETIRA TXARRAK

Zulaika'k bertso auetan esaten dituanak, ez ditu berari gertatuak. Erretira txarrak zer izaten diran adierazteko jarri zituan.

1/ Bertso pare bat jarri biaitut izkuntza eder batian,  
nola gau baten ibilli nitzan  
Aduna'n barrikotian;  
etxe aldera abitu giñan  
iya-iya egunsentian,  
irrintzi eta oiu egiñaz  
bide guziak betian,  
baiña andria aserre zegon  
gure ataiko atian.

2/ Goizeko lautan asi giñaden:  
«Juan biarko'iu etxera!  
Emen luzaro egotia guk  
gerentzat digu galera!»  
Tabernatikan irten orduko  
estrapuzuka lurrera,  
denak alkarri esaten giñon:  
«Au dek gizonen juera!  
Iñolaz ere ez gaituk sartzen  
egunsentiko oera!»

3/ Egunsentia antxe nunbait zan  
gure etxeko sarrera,  
andriak au zan egin zirana  
lendabiziko galdera:  
«Baña, gizona, nun egon zera?  
auxen bada etorrera!  
erropa danak zikindu eta  
loitan ibili al zera?  
Nik eztizut gaur janik emango,  
zuaz, nai baezu, oiera!»

4/ Egunsentian etxera juanda  
azkar oiean sartuta,  
iru minutu pasa baño len  
kasikan luak artuta;  
andria berriz eskobarekin  
ziero aserretuta,  
esan ziraden: «Ez gero etorri  
neregana ordituta,  
bestela laister jarriko zaitut  
bizkarra erdibituta!»



BERTSO BERRIAK  
IPURTATXARI  
LORENZO ZULAIKA'K JARRIAK

- 1/ Egiak garbi esango ditut,  
astera nua benetan,  
gero damurik eduki gabe  
esan gabeko penetan;  
prizti gaiztuak kalte aundiak  
egiten ditu gauetan,  
amasei txito eraman zitun  
goiz-alde baten lauetan,  
olako markik egin duanik  
ezta paraje auetan.
  
- 2/ Prizti ori da oso gaiztua,  
ipurtatxa du izena,  
dударik gabe euki biar du  
bizkarra oso gizona;  
egaztiz dana betia zeukan  
negurako almazena,  
kasik-kasikan itoko luke  
korridetako zezena,  
gauza kaskarra baldin bada're  
ezta alaja zuzena.

- 3/ Pentsatu nuen abisatzia  
 nere laguntxo bateri,  
 orrelakuak arrapatutzen  
 asko saiatzen danari;  
 etorri eta galdetu ziran:  
 «Nundik dabil prizti ori?»;  
 erantzun nion: «Metan azpian  
 badauka luma ugari,  
 antxe gordia egongo dala  
 anka-arraston diruri».
- 4/ Enemigua beti badago  
 bizi danentzat munduan ,  
 orrelakorik eiñgo zuanik  
 asko uste ez genduan;  
 amasei txito ito ta eraman,  
 an zeuzkan zulo onduan,  
 aik ikusita jarri nitzaden  
 Judas zarraren moduan,  
 sardiarekin sastiatzeko  
 ateratzeko orduan.
- 5/ Gorde-lekutik atera-azitzen  
 eztira oso samurrak,  
 obeko degu kendutzia guk  
 meta azpiko egurrak,  
 orduan laister aterako'ute  
 bere lekutik zakurrak;  
 nere lagunak esan ziraden:  
 «Ez gero egon bildurrak!»;  
 erantzun nion: «Sardiarekin  
 autsiko dizkat ezurrak!»

6/ Prizti ondoren pasatu giñun  
ia iru gau osuak,  
katarruakin ito biarrik,  
etziran oso gozuak;  
sasirik-sasi, arkaitzik-arkaitz  
ibillera penosuak,  
alare etziren asko lagundu  
inguru edo auzuak,  
berriz orlakoik gertatzen bada  
jarriko dizket lazuak.

«Ez genduen arrapatu, baña pakiak or-  
duan ein zian. Geiago etzan etorri. Txa-  
kurrak kañu-zuloan sartu zuen.»

## ADUNATARRAI

1/ Adunatarrak, ez nuke nai nik  
zuekin aserretzerik,  
erri ortara iñoiz juatian  
jartzen naiz pozez beterik;  
oraindaño koan eztirazue iñ  
ondo eitia besterik,  
nik ere berriz eztet pentsatzen  
zuek bakarrik uzterik.

2/ Erri ortara segitutzen det  
ogei ta geio urtian,  
danokin ondo portatzen gera  
oraiñdaño bitartian;  
aurrera ere leno bezela  
olaxen izan gaitian,  
azken orduan danok sartzeko  
zeruetako atian.

OLATZA'KO BARRIKOTIARI  
BERTSO BERRIAK

1/ Barrikotian izandu giñan  
Olatza'ko baserrian,  
jan eta edan egin genduen  
errespeto ederrian;  
lau bana litro erango giñun,  
nik bost bat beintzat urrian,  
kantu-lanian etzan atsegin  
orduan gure aurrian!

2/ Aizu, Manuel Olatza'kua,  
ez nago zutzaz aztuta  
zuen etxetik etorri giñan  
barrundik bapo poztuta;  
amar lagunek ia barrika  
utzi genduen ustuta,  
zurruteruak beste azaiñik  
iñun egiten ezta-ta.

3/ Ondo dakizu, egun aretan  
zeu ziñaden botillero,  
zere ustetan gu jarri nairik  
barrundikan oso bero;  
zutik juan nai ta ezin juanikan  
antxen lanak ziran gero,  
iya guziok asi giñaden  
birian danbolintero.

4/ Amalau kilo txekor-kostilla  
Roteta'k zitun ekarri, (1)  
baniatuta danok jateko  
ederki zituen jarri;  
jaten gustora aritu giñan,  
goxok zeuden izugarri,  
merezi du ta eman eskerrak  
nere partez gizon orri.

---

(1) Roteta Aduna'ko semea bañan aspaldiko urteetan Zarautz'en arakiñ bizi dana.

## OITIK JAIKITZIAN EGIN BIAR DANA

1/ Kristauak egin biar du  
oitik jaikitzen  
Jesusi otoitz egin  
biotz-biotzian;  
Birjiña Amari're  
ordu bakoitzian,  
zuzen-zuzen juateko  
zerura iltzian.

2/ Baita're egin biar du  
goizian aurrena  
meza santua entzun,  
al duen lenena;  
aitortza on bat ere bai  
noizik beñ urrena,  
zerua irabazteko  
gauzik ederrena.

3/ Ejenplo au ikasten  
saiatu zaitezte,  
gaitzik eiño dizuenik  
batere ezte uste;  
meza santua entzun  
igande ta aste,  
azken orduan Jesusek  
maiteko zaituzte.

## BANAKAKO BERTSOAK (1)

«Bertso onen lenengo lau puntu ta azkenekua, Txirrita zanak ateriak esaten due; beste laurak Lorenzo Zulaika'k erantsiak bederatzi puntura jartzeko»: (2)

Usurbil'ko semia  
Udarregi zana,  
amaika egi eder  
munduan esana;  
igual zan bota balu  
kolpeko dozena,  
alare etzan aituko  
aren almazena;  
bertsotan zan ona,  
asko zekiena,  
txarrik etzuen  
puntutan zuzena...  
gu ez gerade ezer,  
ura zan gizona!

\* \* \*

---

(1) Atal ontan, Zulaika'ren kuaderno ta paperetan arkitu ditugun banakako bertso guziak bildu ditugu.

(2) Adierazpen au ere, Zulaika'ren paperetatik artua.



Udarregi zanaren omenerako jarritako bertsoa:

Juan Jose Alkaiñ bertsolaria  
genduen Usurbil'koa,  
bere denboran bertso ederrik  
plazetan botatakoa;  
bromak ere bai lagun artian  
askotan jarritakoa,  
omen-aldi bat egin deiogun  
ondo merezitakoa,  
Juan Jose Alkaiñ etzan gizona  
bazterrên utzitzekoa.

(Zarautz, Dagonillak 29, 1965'an)

\* \* \*

Tabernan endredatzen ari diran bertsolariai botatzeko bertsoa:

Jendia laister aspertuko da  
orrelakuan onduan,  
bertsotan iñor oberik danik  
eztu pentsatzen munduan,  
bere izena jarri nai luke  
goi-malletako graduan...  
arrunka asko ta talentu gutxi  
gizon mozkorran buruan!

\* \* \*

Zepaik eta Loidisaletzek Aduna'n bertso-saioa egindako ondoren jarria:

Bertsolariak etorri dira  
Aduna'ra kantatzera,  
gu ere berriz pozez beterik  
oien txistêk aditzera;  
Zepaik ederki sakatu dizka  
gizon jatorren antzera  
Antoniok bai errestatu're  
dotore asko osterá,  
bi bertsolari berdiñagorik  
Euskalerrian ote da?

\* \* \*

Sudur luzia gizon batek esan zidalako jarritako bertsua:

Nere sudurra luzia dala  
nunbait zeukan esateko,  
nik orren buelta ematerikan  
orrek etzuen usteko;  
arotz bateri esan zaiozu  
zeuria ondo neurtzeko,  
oso polita dezula eta  
txalupan puntan jartzeko,  
giro ederra datorrenian  
atunetara juateko.

\* \* \*

## Tabernariari botatzeko bertsua:

Tabernaria ementxe dabil  
arduakin botillero,  
bere ustean gu jarri nairik  
barrendikan oso bero;  
persona gaizki ibilitzen da  
baldin orditu ezkeru,  
neurritik gora asten bagera  
kontu izan zagun gero,  
bestela laister gerade emen  
guztiok danbolintero!

**GREGORIO TA JOSE MANUEL  
UGALDE BERTSOLARIAK**

## GREGORIO UGALDE

Gregorio ta Jose Manuel Ugalde bertsolariak aita-semeak dira. Aita illa da; bañan semea bizi da.

Aita, Gregorio, Zeraiñ'en jaio zan, 1866 urte inguruan. Gregorio bakarrik esaten bazioten ere, bataioz Jose Kruz Gregorio zan. Andoiñ'en egin zuan bere denborarik geiena. Erri ontako sakristaua izan zan.

Bi aldiz ezkondu zan: lenengo, Dolores Beloki Telleria'rekin, bigarren, Leokadia Alustiza San Sebastian'ekin.

Aotik aora bertso botatzen, oso bertsolari polita omen zan, ta askotan kantatzen omen zuan tabernan lagun artean. Bañan ala kantatutako bertsoetatik, bakar bat ere ez degu jaso al izan.

Bertso jartzen ere saiatzen zan. Bere semea, Jose Manuel, aitaren bi jarrialdiz oroitu da orain: Bata, Lourdes'ko Amari jarri ziona. Bañan ez degu, ez bertso-paperik ifun arkitu, ez bertso bakar

bat ere iñoren aotik jaso. Galdu da, beraz, betiko bertso-sorta ori.

Bestea, 1927 urteko Andoain'go misioari jarri ziona. Ontatik lau bertso gogoratu zaizka semeari: 1, 5, 6 ta 15'garrena. Ta, Jaunari eskerrak, bertso-papera Gregorio Mujika zanaren bertso-bilduman arkitu degu, *Editorial Guipuzcoana — Tolosa'n* inprentatua.

Semearen testiguanzaz gañera, beste argibiderik ere bada bertso auek zeñenak diran jakiteko. Azkeneko bertsoak *Ugalde zarrak* jarriak dirala esaten du.

Gure iritzirako, bertso auek, argitaratu aurretik, norbaitek an ta emen ikututa daude, garbitzearren; etziran argitaratu bertsolariak asmatu zituan bezelaxe; bitarteko eskuren bat izan zan.

Dana dala, bertso-sorta au urrengo orri-aldeetan arkituko du irakurleak.

Gregorio Ugalde, 1929 urtean, Martxuaren 15'an il zan, 62 urterekin, pulmoniyaz gaixotuta.

(1927)

BERTSO BERRIAK  
ANDOAIN'GO MISIOLARIYAI  
JARRIYAK

1/ Ogei ta zazpigarren urtea  
beatzireun milla ta,  
Salbadorea jetxi zanetik  
onerañoko zenbata;  
Andoain'darrak izandu degu  
eliz-jaialdi aparta  
erri onetan nola zeguan  
misiolarien falta,  
jaun oiek lana izango dute  
alakoxeak dira-ta.

2/ Zer asmo ziran bagiñekien  
Berrondo jaunak esanda,  
ikusi nai duanarentzat  
argia franko izan da;  
galdetutzea zertako degu  
geok aditzen giñan-da?  
lan ederrikan azaltzen digu  
artarako jaio zan-da,  
ia zer pena artuko duan  
gu infernura juanda.

- 3/ Berak errian sartu baño len  
irten giñaden bidera,  
burni-bideko geldi-tokian  
izan genduan billera;  
kabildo eta erri-gizonak  
batu ziraden sallerá,  
oste aundia inguratu zan  
abur leku umillera,  
gero andikan elizara zan  
lendabiziko ibillera.
- 4/ «Pekataria, atoz!» esanaz  
sartu giñaden eleizan,  
koru ederra organuakin  
berealaxen asi zan;  
ori nola zan jakitekotan  
an bearko zuan izan,  
erdi zalantzan jarri giñaden  
bidez edo mirari zan,  
orduan guri ez poztutzeko  
esatia alperrik zan.
- 5/ Ladislao zan lendabiziko  
itz-lekutikan asia,  
ederki asko zabaltzen zuan  
fede santuko azia;  
iztun ederrak badira baño  
orrek daduka grazia,  
otoitz beruak sarri egiñaz  
zerutik jetxi-azia,  
esnatutzeko esaten zigun  
lotan zeguan guzia.



- 6/ Bigarreanean Laureano zan  
itzaldi aundi arrekin,  
edozein moduz eta nolanai  
etzion lanari ekin;  
nork bururatu gauza oriek  
bear giñuzela jakin?  
gure anima berdin egin du  
Jesusen odolarekin,  
batek zentzua galdu lezake  
au pensatu utsarekin.
- 7/ Irugarrengo arratsaldea  
genduan gôangarria,  
iya bi ordu ezin neurturik  
zer zan pekatu larria;  
ta azkenean esaten digu  
gauza ikaragarria:  
begiratzeko nola zegoan  
gurutzetuta jarria,  
orrenbeste on egin dizkigun  
Jaungoiko maitagarria.
- 8/ Laugarrena zan jua bearra  
edo emengo atzena,  
esan liteke lurak gaiñean  
duan gauzarik beltzena;  
ez dakit zeñek jarriko zion,  
eriotza du izena,  
emen noiz arte izan biagun  
albistalari zuzena,  
esan digute akordatzeko  
arekin al dan maizena.

- 9/ Ill ondorean ezer ez dala  
 iñoiz aditu izan da,  
 iñon kabitu ezin diraden  
 arro batzuek esanda;  
 adiskidea, kontuz ibilli  
 Lutero umildu zan-da,  
 bai al dakizu noiz izango dan  
 zure aldi edo txanda?  
 itz aspertu bat egin bear'zu  
 Pedrorengana juanda.
- 10/ Zure gogoak agintzen badu  
 denbora oni uztea,  
 zeñek esanda jakingo dezu  
 izango dala bestea?  
 nungo letraduk egiña dezu (1)  
 orrelako ajustea?  
 obe zenduke begi aurreko  
 estalki ori austea,  
 bista ona ta ezin ikusi  
 au bizi-modu tristea!
- 11/ Seigarrenean izandu giñan  
 kondenatuen tartean,  
 bañan au etzan betikorako,  
 zer zan ikusi artean;  
 ez gaitezela arren erori  
 onelako suertean,  
 zerbait litzake au baldin balitz  
 ogei milla bat urtean,  
 bañan ez dago denborarikan  
 eternidade batean.

---

(1) Emen bertso-paperak *begi-aurreko* dio; bañan ori kendu ta saietsean *egiña dezu* dago, lapitzez jarrita. Onela bear du, dudarik gabe.

- 12/ Eternidade izugarri au  
gero asi da neurritzen,  
bañan nik nola esango diot  
an etzanari aditzen?  
arrigarrizko izkuntza oiek  
nere gañetik zebiltzen,  
konparazio asko bai baño  
ezer etzuan berdintzen,  
gauza oriek aditu eta  
zein ez gerade arritzen?
- 13/ Guri bideak erakutsitzen  
egin dute alegiña,  
nekez bedenik denbora dala  
konturatuko bagiña;  
nola gizona ez dan munduban  
bukatutzeko egiña,  
betiko pena edo bestela  
sekulako atsegiña,  
gure saria izango dala  
bizitzarekin berdiña.
- 14/ Esker umillak ematen diet  
misiolari jaunari,  
eta urrena bikario ta  
bere lagun diranari,  
orixen bera alkate jaun da  
ondoren daduzkanari,  
beste ainbeste misioetan  
lagundu digutenari;  
beste munduban ordainduko da  
egin dezuten lan ori.

15/ Ernio-peko erri guztiak  
egin digute bisita,  
esan liteke Ernani'raño  
Tolosa'tikan asita;  
gurea berriz jakina dago  
errian bertan bizita,  
berriz guretzat orrelakorik (2)  
ez dagonean etsita,  
egun oriek pasa ditugu  
eginkizunak utzita.

16/ Itzaldi edo sermoi ederrak  
askok ditugu aditu,  
beste batzuek etorri gabe  
bearko zuten gelditu;  
gogoratu zat illuntasun au  
bear dedala argitu,  
artu papera eta ikasi,  
al dan maizena berritu,  
ortarakoxe Ugalde zarrak  
bertsuak azaldu ditu. (3)

---

(2) Emen bertso-paperak *orrelakoxe* dio; bañan ori kendu ta saietsean *orrelakorik* dago. Onela bear du noski.

(3) Bertso-papera, "Editorial Guipuzcoana — Tolosa", Gregorio Mujika zanaren bertso-bilduman.

## JOSE MANUEL UGALDE

Jose Manuel Ugalde bertsolaria, Andoain'en jaio zan, Aita Larramendi kalean, 1908 urteko Azaroaren 17'an.

Onen doaia ez da bertsoak aotik aora botatzekoa izan, bertsoak paperean jartzekoa baizik.

Urrengo orri-aldeetan ipiñi ditugun jarrri-aldietatik, batzuk ez dute egillearen izenik; bañan Jose Manuelek, berak jarrriak dirala esan digu.

Ta bertso-jartzallea ez-ezik, bertso-saltzallea ere izan zan; ain zuzen, Euskalerriko bertso-saltzallerik azkenetako bat izan da.

Taller batean bere kontu lan egiten zuan. Ta, nunbait ere festa zanean, taller itxi ta ara joaten zan, bertso-paper-pilla bat artuta. 1947 ta 1953 urte bitartean ibilli zan gisa ontan.

Erri ta toki asko korritzen zuan. Gipuzkoa'n: Tolosa, larunbatetan, merkatu-egunean alegia; Azpeitia; Errenteria,

Irun; Berastegi; Ernio, mendi ontako gurutzearen erromeria egiten dan egunean... Donostia'ra bein bakarrik joan zan; kantari asi ta zeladoreak debekatu egin zion. Etzan geiago joan.

Naparroa'n: Elizondo, Bera, Santesteban, Leitza, Lekunberri, Irurzun...

Bizkaia gutxiago korritu zuan. Ala ere andik barrena ere ibilli zan: Urkiola'n, San Antoniotan; Abadiano'n, San Blas egunean; Gernika'n...

Bertso-paper batzuk berak jarriak izaten zituan; besteak, berriz, lengo bertsolari zarrak jarriak.

Asieran asko saltzen zuan; bañan gero afizioa gutxitzen joan zan, ta jendeak gero ta gutxiago erosten zuan. Ta ala, utzi egin zion saltzeari.

Gaur, beti bezela, Andoain'en bizi da. Bera da argibide auek danak, ta bai bere aitarenak ere, eman dizkiguna.

## NERI GERTATUA (1)

Donosti aldeko erri batian  
izandu nitzan ni urte batian,  
ango festak ziran egun batian;  
karrika extu ta koxkor batian  
ia ito nintzan jende tartian.  
Iru gizon zeuden leio batian,  
neri par egiñaz danen artian.  
Eta nik, ikusi nitubenian,  
arri bat arturik atzaparrian,  
tira ta jo nuben mutur-zañian.  
Jua karraxika asi zanian,  
eun gizon banitun nere gañian;  
eta an nagola danen azpian,  
ikusi nituben an urrutian  
bi guardia zibill zaldi gañian.  
Nere gañekuak, aik ikustian,  
oju egin zuten: «Utzi pakian!»

\* \* \*

---

(1) Izenburu au, Ugalde'k berak inprenta-arazitako bertso-paper batetik artua degu. Bertsoak, berri, gerraz aurretikako periodiku-punta batetik. Punta au, Donostia'ko Juan Iturralde'k eman zigun. Etzaio ageri zer periodiku dan, ezta ere zein egunetakoa. Izenburua batetik eta bertsoak bestetik, beraz. Orra zergatik:

Periodiku-puntak obeto dakarzki bertsoak, bertso geiago; bertso-paperak zenbait puntu an ta emen

Guardik, neregana allegatzian,  
ia zer eñ nuben galdetu zian.  
Gizon jiboso bat, danen atzian,  
asi zan esaten marru bizian:  
«*¡Ha pegado un hombre gaur goizian!*»  
Guardiazibillak, ori aitxian,  
jarri niñuzen ni zaldiñ erdian.  
Beste gizon danak nere atzian,  
prozesiyo eder baten antzian.  
Kale guztiyetan oju bizian,  
danak ari ziran nere kaltian,  
esanaz: «Urrena atorrenian,  
pagatuko dituk danak batian!»

\* \* \*

Eguerdiko amar t'erdik aldian  
arkitu giñaden kartzela aurrian.  
Guardiazibillak ustekabian  
makillaz jo niñun bizkar gañian;  
eta nik karraxi egin nunian,  
parrez asi ziran danak batian.  
Eta naiko parra eñ zutenian,  
bultzatu zidaten indar guzian,  
eta erori nintzan zulo batian.

\* \* \*

---

falta du. Orregatik, bertsoak peridikuari kopiatu dizkiogu.

Izenburua onela dator periodikuan: *Goierriar bati gertatua*. Bañan Andoain ez da Goierri. Orregatik, bertso-paperari artu diogu: *Neri gertatua*.

Emen kontatzen dana, ez omen da gertatua, asmatua baizik.



An egondu nintzan illabetian,  
zorri ta arkakuso askon artian;  
saguk eta arratoik ere bazian,  
kabiya zutela oian azpian.  
Eta ni patxaran lotan jartzian,  
kosk eltzen zidaten atzekoaldian;  
segika asten nintzan amorraztian,  
bañan sartzen ziran zulo batian,  
berriz nik lo artzen nun bitartian.

\* \* \*

Biar zan denbora pasa zanian,  
atera nintzan gau illun batian.  
Laxter sartu nintzan nere trenian,  
esaten nuela nere artian:  
«Enaute ikusiko pixka batian  
onelako erri koxkor batian!»

\* \* \*

Orra nik kontatu ixtanpatian  
zer ikusi nuben illabetian,  
Donosti aldeko erri batian,  
ango festak ziran urte batian.

BERTSO BERRIYAK  
J. M. UGALDE'K JARRIYAK

Bertso auetan kontatzen dana ere, ez da gertatua, asmatua baizik. Bertso auek eta *Neri gertatua* izenburuaren azpian datozenak bertso-paper berean argitaratu ziran, bakoitza alde banatatik, «Joaquín Muñoz Baroja»-ren moldiztegian. Tolosa'ko Antonino Lakunza zanak eman zidan bertso-paper ori.

- 1/ Erri koskor batian  
juan dan igandian  
itzal ederra zegon  
belaz batian;  
lau atso ari ziran  
gogotik musian,  
berak nai zutelako,  
amar erregian;  
eta aldamenian  
botilla betian  
orbela tartian  
preskatu artian,  
pakiak egiteko  
asarretzian.

2/ Pantxika ta Kontxezi  
alde batetikan,  
Ana eta Mikela  
beste aldetikan;  
amarrekotan berdiñ  
daude oraindikan,  
tantuakgatik berriz (1)  
eztigu inportikan;  
ez det kiñurikan  
aien begitikan  
atera danikan  
ikusi oraindikan,  
sasi tartetik beida  
egonagatikan.

3/ Aundiya paso juan zan,  
txikiya ere bai,  
parerik ez du iñork,  
ezta ere nai;  
bestetik ez izan arren  
puntu ederra bai,  
amar tanto enbido  
euki nai ditunai;  
Mikelak euki nai,  
Anak ez utzi nai,  
Kontxezik: «Ja, ja, jai!  
ez al dezute nai?  
jaso itzan bi tanto,  
ez diñagu nai!»

---

(1) Bertso-paperean: *tantugatik*.

4/ Irugarren pasara  
zan oso polita,  
Anak bi erregekiñ  
ordo aundiya;  
Kontxezik: «Ez diñat nai!  
nai baden txikiya,  
ogei tanto enbido,  
ez den galestiya!  
Bi bateko seya,  
bestia zazpiya,  
atera itun iya!»  
Auxe komeriya:  
eukita galdu zuten  
joku guziya!

5/ Jokuba bukatuta  
jarri ziranian,  
altxatu egin ziran  
danak batian;  
ardo asko zeukaten  
tripan barrenian,  
izkutatu ziraden  
erreka batian,  
ni sasi tartian;  
aiek ikustian,  
zertara jun zian  
beidatu nunian,  
erreka azi zuten  
lauben artian.

## PADUA'KO SAN ANTONIO'REN BIZITZA

1/ Komeni diran bertso berriyak  
kantatu al bageneza,  
orretarako eskatzen diyot  
goiko Jaunari laguntza,  
une batean jaso dezagun  
zerurontz gure biotza,  
labur bederik kanta dezagun  
San Antoniyon bizitza.

2/ Milla eun da larogei eta  
amabosgarren urtian,  
Portugal deitzen zaion naziyo,  
uri ospetsu batian,  
Ama Birjiña zerura igo  
zan egun zoragarrian,  
ipiñi zuen lore eder au  
zeruko Jaunak lurrian.

- 3/ Mutikotxua polita zegon,  
bost urte bete zituban,  
bere guraso onak poz-pozik  
beti eukitzen zituban;  
zeruko Amari itz egitia  
beste jolasik etzuban,  
sei urterako garbitasuna  
betiko eskeñi zuban.
- 4/ Birtute eta jakinduriyan  
txit aurreratzen zijuan,  
ogei ta lau urte baño len  
meza ere eman zuban;  
Aita Prantzisko Asis'koaren  
irudiya artu zuban,  
bera bezela egarri aundiz  
serafiñ izan nai zuban.
- 5/ Irakurtzen da San Antoniyo  
bein emen izandu zala,  
berak txit maite zuben amona  
Urkiola'n bizi zala,  
San Anton dagon aldare ortan  
otoitza egin zubala;  
orregatikan esan oi dute  
bere onduan daukala.

- 6/ Nolako poza ta atsegifia  
santu onen biyotzian,  
zeruko Amak Jesus aurtxua  
bere besotan jartzian!  
Zoriontasun aundiyagorik,  
jakintsuen iritzian,  
eziñ nabaitu lezake iñork  
zerura jua ezian.
- 7/ Mirari asko egin zituban  
Jaungoikuak ala naita:  
egun batian jendetza asko  
berari entzun nai ez ta  
ikusi zuten nola arraiak,  
danak batera bilduta,  
entzun ziyoten arreta aundiz,  
danak batera bilduta.
- 8/ Mirari ori ikusi zuten  
sinisgabeko taldeak,  
ikusi ziran une batean  
Jaunaren graziz beteak;  
amar millatik gora ziraden  
egunero entzuleak,  
elizan ezin kabitu eta  
itzegiten du kalean.

- 9/ Anima asko bildu nairikan  
artzai onaren taldera,  
abiatu zan egun batean  
Padua erri aldera;  
erri guziya, lanak utzita,  
irten zitzaion bidera,  
berdiñ gabeko santuba onen  
mirariyak ikustera.
- 10/ Milla berreun da ogei ta amabi  
ziraden urte berian,  
ogei ta amasei urte beteta  
ill zan Jaunaren grazian;  
kanpaiak berez jotzen zutela  
beren doñu alegrian,  
«Santuba il da!» esaten zuten  
aurtxo guztiyak kalian.
- 11/ Ill ondorian San Antoniyok  
egindako mirariyak,  
ez ditu noski iñoiz aztuko  
Padua erri aundiyak:  
sendatu ziran gor mutu asko,  
itxu eta elbarriyak;  
«Gora santuba! Aintza Jaunari!»  
esaten zuten guztiyak.



12/ Ikusirikan San Antoniyok  
zer bizitza egin zuban,  
bere antzera goi-maitasunez  
bizi gaitezen munduban;  
gure bizitza alaitasunez  
beteko zaigu orduban,  
eta azkenik ill ondorian,  
sartuko gera zeruban. (1)

---

(1) Bertso-papera, moldiztegi-izenik gabea, Jose Manuel Ugalde'k berak emana.

(1948)  
BERTSO BERRIYAK  
ONDARRABIARRAI JARRIYAK

1/ Milla bederatzireun  
berrogei ta zortzi,  
Donostiya'n regatak  
ditugu ikusi;  
ondarrabiatarrak  
ditugu nagusi,  
emen etorri dira  
bandera ta guzi.

2/ Falta ziran Pasaia  
eta Donostiya,  
Gipuzkoa'tikan bat,  
ura Ondarrabiya;  
Bernardo Elduayen  
zutela patroia,  
bandera irabazi,  
ori dek sasoia!

3/ Illaren bostian zan  
lendabizikua,  
ondarrabiar onek  
egin du naikua;  
Pedreña'k eziñ eutsi  
oien erasua;  
erriyuan ez gaude,  
au da itxasua.

4/ Ogei ta amar segundo  
estropada batên,  
Pedreña aundiyari  
dizkatela kentzen;  
alperrik da Oriyo  
Pasaia naiz irten,  
Ondarrabi kanpeon  
Españiya'n aurten!

5/ Castilla'tik etorri  
dira arrotuta,  
aiek añakorik ez  
dala sinistuta;  
oraiñ bueltatu dira  
oso umilduta,  
kaskarreko ederra  
buruban artuta.

6/ Bi urtian egondu  
dira gobernatzen,  
zortzireun milla pezta  
gañera gastatzen;  
Ondarrabiya'k berriz  
—zein ezta arritzen?—  
amabost egun pasa  
ditu preparatzen.

7/ Orain bi urte ere  
—nork ez du goguan?—  
Españi'ko txapeldun  
Pedreña zeguan;  
etorri zan onera  
arruen moduan,  
Ondarrabiya'rekin  
galdu egin zuan.

8/ Ondarrabiya'k badu  
mutilla trebia,  
bost bandera oietan  
badauka partia;  
au bai dala erriyai  
fama ematia!  
Pedreña'k izandu du  
orrekin kaltia.

- 9/ Alperrikan dabilta  
Pedreña ta Oriyo,  
Ondarrabiya'rentzat  
ez dute baliyo;  
«Argi ikusi degu!»  
alkatiak diyo  
ayuntamentutikan  
umil da seriyo.
- 10/ Sagarzazu jaun orren  
poz eta atsegiña,  
guztiyen aita danez  
da gauza jakiña;  
Marina'ra joan giñan  
jendia nai aña,  
an berriz egiñ zuan  
itzaldi bikaña.
- 11/ Gipuzkoa guztiyak  
arturikan parte,  
gaurko jai eder au  
antolatu dute;  
erriyak eta bandak,  
aguazil da alkate,  
arraunlariak ondo (1)  
merezia dute.

---

(1) Bertso-paperean: *arraunlarik*.

12/ Amabigarren bertso  
onekin amaya,  
ez da iñoiz aztuko  
emen gaurko jaya;  
Euskalerra guztiyan  
entzuten da deya:  
Gora Gipuzkoa ta  
gora Ondarrabiya!! (2)

---

(2) Bertso-papera, moldiztegi-izenik gabea, Jose Manuel Ugalde'k berak emana.

(1951)  
BERTSO BERRIAK  
ORIO'KO ARRAUNLARIAI  
JARRIAK

1/ Milla bedératzireun  
berrogei ta amaika,  
Donostia'n bildu da  
jendetza galanta,  
estropada aundia  
jokatzen dala-ta;  
egualdia ederra,  
itxaso aparta.

2/ Orio, Donostia  
eta Ondarrabi,  
Zumaia eta Zarautz,  
gañera Getari;  
bizkaitarrak ez dira  
onera etorri,  
«Obe diagu ez joan!»  
esanaz alkarri.

3/ Donostia'n ez degu  
ikusi oraindikan  
aurtengo estropada  
bezelakorikan:  
gaztiak zintzilika  
arboletatikan,  
mendiyak jendez bete,  
etzan tokirikan.

4/ Illaren bian zuten  
lendabizikua,  
Orio aurrena baietz  
diruba naikua;  
nunbait patroia zuten  
konfiantzakua,  
amaika estropada  
jokatutakua.

5/ Eguardiko amabiak  
jo duten orduban,  
ontziak irten dira  
tximisten moduban;  
laister ikusi degu  
indarra nork duban;  
Donostia lenbizi  
sartu da portuban.



6/ Bigarren tanda zuten  
Orio'tarrakin,  
Zarautz eta Zumaia  
kuadrilla onakin;  
etzioten nolana  
arraunian ekin,  
Orio lendabizi  
bentaja aundiakin.

7/ Urrengo igandian  
zuten lendabizi,  
Zarautz eta Zumaia  
alkar ezin ausi;  
ziabogan Zumaia  
gelditu ta asi,  
Zarautz'entzat bentaja,  
Getari lenbizi.

8/ Azkeneko estropada  
danetan onena,  
bandera norentzat dan  
esango diguna;  
badijuaz aurrera  
puntetan barrena,  
laister bueltatu dira,  
Orio aurrena.

9/ Bilbao'n jokatu zuten  
juan dan igandian  
Españi'ko txapeltza,  
ura zan jendia!  
Orio añakorik  
ez izan ordia,  
bi bandera ederrak  
or dauzka gordiak.

10/ Orio'tarrak beti  
arraunlari onak,  
onek aurrera ere  
emango'itu lanak,  
atzera utzirikan  
kontrario danak,  
osasuna ematen  
badiote Jaunak.

11/ Españi'ko txapeldun  
aurten da Orio,  
euskaldunak txit gora  
au dala merio;  
emen kontubak ez du  
batere balio,  
kastillarrak ez dira  
ortarako jaio.

12/ Gaurko jai aundi ori  
dute merezia,  
orla jaso dutenak  
gure Euskal-erria;  
deadar egiteko  
orain da garaia:  
Gora ain jatorra dan  
Orio'ko erria! (1)

---

(1) Bertso-papera, moldiztegi-izenik gabea, Orio'-  
ko Joakin Aldabe jaunak bialdua.

(1953)  
BERTSO BERRIAK  
ORIO'KO ARRAUNLARIAI JARRIAK

1/ Milla bederatzireun  
berrogei ta amairu,  
aurten mundu zar onek  
berriak baditu:  
aurtengo estropada  
nola zan aditu,  
gauza au ikasi gabe  
ez beintzat gelditu.

2/ Munduban gauza eder  
asko izanikan,  
ez dago Donostiya  
bezelakorikan;  
ondartza edo playa  
jendez beterikan,  
zerbaitegatik datoz  
estranjeritikan.

3/ Illaren seian zuten (1)  
lendabizikua,  
Oriyo aurrena baietz  
diruba naikua;  
askok esaten zuten:  
Betiko Jainkua,  
ogei ta lau segundoz  
ez al da naikua?

4/ Oriyo, Donostiya  
eta Ondarrabi,  
San Juan, Zarauz, Zumaia  
eta Errenteri;  
egualdiya ederra,  
itxasua guri,  
itxas-ertzian bazan  
jendia ugari.

5/ Lenbizi irten ziran  
San Juan da Ondarrabi,  
berekin zituztela  
Zarauz ta Errenteri;  
indarrak berdiñ dira,  
badijuaz larri,  
etorri diranian  
San Juan garailari.

---

(1) Bertso-paperean: *seiyeen*.

6/ Bigarreanean zuten  
oriyotarrakin,  
Zumaiako mutillak  
donostiarrakin;  
etziyoten nolana  
arraunian ekin,  
Oriyo lendabizi  
bentaja aundiyakin.

7/ Urrengo igandian  
egualdi ederra;  
Oriyo lendabizi,  
onentzat bandera;  
onek ekarri diye  
askori galera,  
eskarmentuban sartzen  
errezak ez gera.

8/ San Juan da Ondarrabi  
ziraden urrena,  
estropada ederra  
oik egin dutena;  
gauza bat da ni orain  
arritzen nauena:  
zer da Donostiya'ri  
gertatu zaiona?

- 9/ Etzuen askok uste  
Errenteri'tikan  
alako kuadrillarik  
irtengo zanikan;  
Donostiya ta Zarauz  
atzera utzirikan,  
allegatu dirade  
pozez beterikan.
- 10/ Iru urte oietan  
Oriyo nagusi,  
badaukate bestiak  
ontan zer ikasi;  
urrengo urterako  
preparatzen asi,  
bestela juango zaie  
bandera igesi.
- 11/ Estropada ederrak  
asko izanikan,  
ez det goguan aurtan  
bezelakorikan;  
itxasua zegoen  
geldi-geldirikan,  
zerua urdiñ-urdiñ,  
etzan aizerikan.

12/ Gaurko jai aundi ori  
ospatu nairikan,  
orra amabi bertso  
antolaturikan;  
eskerrik asko danai  
barren-barrendikan,  
aurten egin dezuten  
azafiatikan. (2)

---

(2) Bertso-papera, moldiztegi-izenik gabea, Jose Manuel Ugalde'k berak emana.



## BERTSO BERRIYAK GAZTEAI JARRIYAK

Bi bertso-paper arkitu ditugu bertso auekin. Egillearen izenik ez dute, bañan Jose Manuel Ugalde'k, berak jarriak zira-la esan zigun. Guk ditugun kanta-paper oietatik, bata Ugalde'k berak emana degu; bestea, liburu ontan bertan azaltzen dan Lorentza Zulaika bertsolariak emana. Bertsoak, bitara, euskeraz ta erderaz jarriak dira.

1/ *Voy a contar un caso,  
gaztientzat ona,  
que veo los domingos:  
mutillak nai gona;  
a su vez las muchachas  
senar-gai on bana;  
escuchadme atentos  
esango dedana.*

2/ *«Las cuatro de la tarde,  
egualdi ederra,  
a las cinco el baile,  
goazen plaza aldera!»  
Las chicas se preparan,  
ispillun ai dira,  
haciendo maquillaje  
aspertuko dira.*

3/ *«¿Qué te parece, Mari,  
begiko pestaña?  
Parece que no luce  
igandian aña.»  
«¡Ay!, qué boba eres, chica,  
tienes poca maña,  
con el pincel estrecho  
artzen da tamaña.»*

4/ *«¿Dónde has dejao, Joxepa,  
pintura gorriya?  
¡Ya me has hecho buena!  
Auxen komeriya!  
¡Cuidao que eres idiota  
enparagarriya!  
¡Me has roto el frasco  
atzo ekarriya!»*

5/ *«El primer pasadoble  
dantzatu gaitezen!»  
Se acercan los chavales  
esanaz: «Faborez!»  
«Bai!» les contestan ellas  
irrifar egiñez,  
bailar un fox muy lento  
naiz iñork jakiñ ez.*

6/ *«Cuando bailo contigo  
jai-arratsaldian,  
no pienso otra cosa  
etxera jutian:  
Aquella sí que es guapa  
guztiyen artian!  
Me casaré contigo  
urrengo urtian.»*

7/ *«No eches tú las redes  
ni katiatzeko,  
no tengo muchas ganas  
enamoratzeko;  
sois engañosos todos,  
egiya esateko,  
ya tengo yo motivos  
eskarmentatzeko.»*

8/ *Mientras esto ocurre,  
mutillak guapuak  
juegan en las tabernas  
musian pikuak;  
y para olvidar lo que hacen  
beste mutikuak,  
cantan de vez en cuando  
Bilintxen bertsuak. (1)*

9/ *«¿Qué hacéis, jovencitos,  
joan gabe plazara?  
—les pregunta un viejo  
eranaz patarra—;  
vosotros sois de ellas  
zorion bakarra,  
casando se remedia  
askoren negarra.»*

10/ *El lunes en la fábrica  
komentariyua:  
«¿Qué te parece, Encarna,  
nere nobiyua?  
Aquel sí que es guapo,  
mutilla yayua,  
doctor en medicina  
du ofiziyua.*

---

(1) Bertso-paperak *Ilintxen*, bafian *Bilintxen*  
bearko du noski.

11/ *Este doctor me dijo  
notizi berriya:  
Para engordar el pecho  
estutu gerriya;  
nada de cinturones,  
mia lokarriya,  
y con agua de ortigas  
kendu egarriya.»*

12/ *Ahora un consejo  
neskatxa danari:  
divertiros si queréis,  
txit ona da ori  
pero mucho cuidado  
pekatun erori;  
rezad por las mañanas  
Ama Birjiñari.*

(1953)

BERTSO BERRIYAK  
1953'KO UGALDEARI JARRIYAK

- 1/ Negargarrizko gertakizun bat  
nai nuke adierazi,  
orretarako goiko laguntza  
eskatuko det lenbizi;  
probintzi onek ez du oraindik  
orlakorikan ikusi,  
guk ala uste ez izan arren  
nunbait genduen merezi;  
bertso berriyak jartzera nua,  
nai dituenak ikasi.
  
- 2/ Milla urte ta bederatzireun  
berrogei eta amairu,  
Urriko illaren amalauba zan,  
ongi esango banitu;  
zerua illun, egun guztiyan  
ebirik etzan gelditu,  
errekak gañez mendiyen bera  
ezin ziraden kabitu;  
gaba gañian, argirikan ez,  
guztiyak giñan larritu.

3/ Erriyo onduan bizi ziraden  
kristauak zer eriyua,  
laguntza eske deadar biziz  
zabaldurikan leyua;  
besterik etzan ezer ikusten  
kandelaren errañua,  
iñundikan e eziñ lagundu  
urez txit inguratua,  
pentsatu zuten iritxi zala  
aientzat azken ordua .

4/ Gipuzkoa'ko erriyo danak  
beren tokitikan erten,  
Beasain'dikan asi zitzaigun  
kalte aundiyak egiten;  
Billafranka ta Tolosa'rekin  
nork ez du negar egiten?  
Billabona ta Andoain gero,  
berdiñ dabilta Lasarte'n,  
Usurbill eta Oriyo gero  
itxasora sartu arten.

5/ Tolosa'n egin duen kaltia  
nik eziñ adierazi,  
ura nola zan jakitekotan  
ikusi biar lenbizi;  
dendarik etzan sano gelditu,  
gauza guztiyak igesi,  
fabrika danak urak artubak,  
makinarik ezin asi,  
bazar guztiyak loiez betiak,  
garbitu biar lenbizi.

6/ Gure aurreko kristau zintzuak  
antziñatikan egiña  
andoaindarrak emen daukagu  
gurutze santu bikaña;  
irakurtzen da ugaldeak beñ  
ikutu ziola oña,  
oraingu ontan metro bat geigo  
arrapaturik gerriya;  
ikusi nai duanarentzat  
an dago marka jarriya.

7/ Azpeiti eta Zestona aldetik  
artu giñuzen berriyak,  
sinistu ere ezin giñuzen,  
ain ziran negargarriyak;  
ogei ta geigo ito ziraden,  
danak euskaldun garbiyak,  
entiaruan antxen jua ziran  
danak illeran jarriyak,  
ura ikusita uste det negar  
eingo zubela arriyak.

8/ Donosti'tikan Azkoiti aldera,  
iya iñulabarrian,  
automobilla irten zitzaigun  
guztiya jendez betia;  
Arrona'n ondo, andik aurrera  
etzan posible joatia,  
pentsatu dute bertan utzita  
Zestona aldera joatia,  
beste batekin ateratzeko  
fuerte loturik katia.



- 9/ Gizonak joanda, autobus ura  
asi zan urez betetzen,  
ango jendian larritasuna  
jarri gaitezen pentsatzen;  
neskatx on batek gurutze deuna  
guztiyai zien azaltzen,  
esanaz laixter bere aurrera  
nola joan bearko zuten,  
orduan danak asi ziraden  
ondo iltzeko prestatzen.
- 10/ Andikan laister ur-golpe batek  
arturik bere aurrian,  
abiatu zan itxas aldera  
beste urakin batian;  
aien orduko larritasuna  
pentsatzen jarri gaitian,  
alkarri elduta Jesusi esanaz,  
beren azken otoitzian,  
zeru aldera jaso ditzala  
beren animak iltzian
- 11/ Gure bizitza txartzen baguaz  
oitura onak utzita,  
Jaunak zigortuko gaituela  
egon giñezke etsita;  
jantzi apañak ljuak, modak,  
familiaran errita,  
estranjeriko oitura txarrak  
egin digute bixita,  
gaztientzako onak ez dira,  
dantza lotutik asita.

12/ Atsekabean laguntza asko  
artu dituzte erriyak,  
ikusirikan gertatu ziran  
gauza ikaragarriyak;  
biyotzetikan ematen dizket  
eskerrak eta graziyak,  
itzak ez dute bate baliyo,  
obrak dirade egiyak,  
orretarako jarriyak ditu  
Ugalde'k bertso berriyak. (1)

---

(1) Bertso-papera moldiztegi-izenik gabea, Jose Manuel Ugalde'k berak emana.

## ORAINDAÑOKO LIBURUAK

1. R. Artola: Sagardoaren Graziya (Aitua).
2. M. Soroa: Gabon, au ostatubal, Anton Kaiku. (Aitua).
3. F. Apalategi: Euskal mutillak armetan, I.
4. Pepe Artola: Ustez laguna detan.
5. P. M. Urruzuno: Euskalerritik zerura. (Aitua).
6. T. Alzaga: Ramuntxo. (Aitua).
7. R. Azkarate: Galtzaundi. (Aitua).
8. A. Apaolaza: Patxiko Txerren. (Aitua).
9. B. Iraola: Oroitzak.
10. Errege eguneko bertso sayoa (1962). (Aitua).
11. P. Larzabal: Bordaxuri. (Aitua).
12. Bilintx: Bertso ta lan guziak. (Aitua).
13. M. Izeta: Dirua galgarri. (Aitua).
14. P. Larzabal: Iru ziren.
15. Ezkontza galdutako bertsoak, I.
16. A. M.<sup>a</sup> Zabala: Gabon gau bat.
17. A. M.<sup>a</sup> Labayen: Malentxo alargun!
- 18-19. A. Zavala: Txirrita. (Aitua).
20. F. Gofii: Lurdesko gertaerak. (Aitua).
21. P. Larzabal: Herriko bozak.
22. Bertsolarien txapelketa (30-XII-1962).
23. Aizkolariak.
24. F. Imaz: Bertso guziak.
25. A. P. Iturriaga: Jolasak.
26. A. M.<sup>a</sup> Zabala, A. Larraitz, Mir: Periyaren zalapartak.
27. Azpeitiko Premiyoaren bertsoak.
28. B. A. Mogel: Ipui onak.
29. T. Alzaga: Burruntziya.
30. G. Anduaga: Egunsentiko txoria.
31. M. Soroa: Baratzan.
32. M. Elicegui, A. Zavala: Pello Errotaren bizitza.
33. M. Elicegui, A. Zavala: Pello Errotak jarritako bertsoak.
34. P. Larzabal: Senpere-n gertatua.
- 35-36. J. V. de Echagaray: Festara.
37. A. Cardaberaz: Euskeraren berri onak.
38. S. Salaverria: Neronek tirako nizkin.
39. Amar urteko bertso-paperak.

- 40-41. *J. R. Zubillaga*: Lardasketa.
42. *Uztapide*: Noizbait.
43. Bertsolari-txapelketa (1-I-1965).
44. *P. Larzabal*: Hilla esposatu.
- 45-46. *J. M. Satrústegui*: Bordel bertsolaria.
47. *P. M. Urruzuno*: Iru ziri. (*Aitua*).
48. *P. Barrutia, Sor Luisa, X. Munibe*: Teatro zaarra.
- 49-50. *A. Zavala*: Pello Errotaren itzala.
51. *P. M. Urruzuno*: Ur-zale baten ipuiak.
- 52-53. *G. Anduaga*: Bertso-bilduma.
54. *A. Zavala*: Fernando Amezetarra bertsolaria.
55. *Basarri*: Laugarren txinparta.
56. *A. Zavala*: Udarregi bertsolaria.
- 57-58. *C. Beobide*: Asis'ko Lorea.
59. *A. Zavala*: Axentxio Txanka bertsolaria.
60. *A. Zavala*: Errikotxia, Itxaspe ta beste zenbait bertsolari.
61. *A. Zavala*: Gaztelu bertsolaria.
62. *A. Zavala*: Zarautz'ko Zaldubi bertsolaria.
- 63-64. *A. Zavala*: Juan eta Pello Zabaleta bertsolariak.
65. *J. M. Satrústegui*: Luzaide'ko kantiak.
66. *A. Zavala*: Iru bertsolari.
67. Bertsolari-txapelketa (11-VI-1967).
- 68-69-70. *A. Zavala*: Alzo'ko Imaz bertsolaria.
- 71-72. *A. Iturriaga*: Ipuiak.
73. *A. Zavala*: Iru anai bertsolari.
- 74-75. *A. Zavala*: Errenteria'ko bertsolari zaarrak.
76. *A. Zavala*: Alza'ko bertsolari zaarrak.
- 77-78. *A. Zavala*: Paulo Yanzi ta bere lagunen bertsoak.
- 79-80-81. *A. Zavala*: Lexo bertsolaria.
82. *A. Zavala*: Juan Maria Zubizarreta bertsolaria.
83. *A. Zavala*: Motza, Zulaika ta Ugalde bertsolariak.

